



HAINBESTE DIRA...

Familia ezizenek indar handia izan dute herrian, eta belaunaldietan transmititu dira horiek 20



BIZI-KALITATEARI BALIOA EMATEN DIOTENENTZAT

AUDIOFONOA
690€-TIK AURRERA*

GAES Azpeitia
Foru Pasealekua Ibilbidea, 8
Tel. 943 150 395



* Audiofonaen prezioa, hurrengoaren eskaintza den modeloen beste eskaintza batiak baino GAES-en bidez. Galberriz, ez Audiofonaen, Diktionary Services S.A. (Wolfgang, 2, 93007 Al. Lant. CT-A06812061, R.P.S. Nº 17614)

TEATRO REAL
ZORROS

GAES
Entzumen Zentzua


Zatoz gure erakusketa berria ikustera!




Astelehenetik ostiralera:
9:30 - 13:00 | 16:00 - 20:00
Larunbata: 9:30 - 13:00

uztarria.eus

BISITAK



IKUSITAKO ORRIALDEAK



Eskerrik asko emaitzengatik!

BAZKIDE KOPURUA



Bazkide datuak hobetzen lagunduko?

**Urtean
30euro**

Bazkideen abantailak:

- Uztarria proiektuaren parte izan
- Bestelako produktuak etxean jaso
- Zozketetan eta lehiaketetan parte hartzeko aukera



uztarria

Argitaratzailea. Uztarrria
Komunikazio Taldea. Azpeitia
Egoitza. Perez Arregi plaza 1, behea,
(Azpeitia, 20730)
Telefona eta faxa. 943 15 03 58
Posta elektronikoa.
uztarria@uztarria.eus
Posta kutxa. 227, Azpeitia
Lege gordailua. SS-860/2000
Zenbakia. 202.a (2018ko otsaila)
Urtea. XVIII.a (1999ko azaroan sortua)
Maiztasuna. Hilabetekaria
Diseinua. Eregi Komunikazio eta
Euskara Zerbitzuak
Publizitatea. 685780412 /
uztarria@uztarria.eus
Bazkidetza. 943 15 03 58
Tirada. 2.500 ale hilero
Inprimategia. Leitzaran Grafikak
Azaleko argazkia. Iñaki Martinez
Webgunea.
www.uztarria.eus

Uztarrria herri aldizkariaren
laguntzaileak



DOMUSA
TEKNIKA



Gipuzkoako
Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzako
Hezkuntza, Hizkuntza
Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak) diruz
lagundua

Oharra. Uztarriak ez du bere gain hartzen
aldizkarian esandako iritzien erantzukizunik

2017KO OTSAILA UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER?



iritzia

Inkesta.

Karnabaletarako
arropa erosi edo
berrerabili? **13**

mamia

Elkarrizketa. Asier

Agiriano ile-apaintzaile
eta makillatzailea
Berlinen bizi da **04**

Klik! 2017. urteari
errepasoa, irudietan **16**

Ipuin kontalariak.

Istorioak sortzen eta
kontatzen dituzten
azpeitiarrak,
solasean **26**

jakiteko


Bestaldetik. Miren

Larrea Orkestra
Institutuko kidea, lan
jardunaz haratago **34**

Ba al dakizu hilaren 10etik derrigorrez
erabili beharko dela txipa errefusa eta
hondakin organikoak botatzeko? Uztarrria


Izan uztarriaren bazkide **t 943 15 03 58**

**Herri aldizkariak gain, Uztarriaren produktuak
ere eskuratuko dituzu.** Uztarrria Komunikazio Taldeak
orain arte **13 liburu, CD 1, DVD 1 eta biografia
txikiak** atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen.



1.060 bazkide
gara Uztarrria Komunikazio
Taldean; eskerrik asko denei.

30 euro
dira urtean.



Liburuxka biografikoak, oraingoz. Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre, Santi Lazkano, Amaia Garmendia,
Enkarna Arregi, Iñaki Bergara, Bernardo Aizpitarte 'Kabra', Enrike Zurutuza, Maria Jesus Arregi, Patxi Azkargorta

ASIER AGIRIANO

ile-apaintzailea eta makillatzailea

“Pixka bat pinpirina izan egin behar da”

Desfile handietako modeloak orrazten eta makillatzen ditu Agirianok. Pasareletan ez ezik, kalean ere irudia zaintzea garrantzitsua dela uste du. 📧📞 Ihintza Elustondo

Aktore gisa lehen pausoak ematen hasi bazen ere, batere espero gabe “maitemindu” zen irudiaren munduarekin Asier Agiriano. Egun, Berlingen bizi da, eta bi agentzian egiten du lan: Madrilgo Coolen eta Berlingo Nina Kleinen. Ile-apainketaz eta makillajeaz arduratzen da, baina ez du ohiko ile-apaindegietan lan egiten: moda desfileetan, katalogoetan eta aldizkarietako moda erreportajeetan aritzen da. Madrilgo Fashion Weeken eta Berlingoan izan da duela gutxi, eta iragarkietarako nahiz bideoklipetarako ere hasi da lanean.

Egun zauden lekura iristeko pixkanaka joan beharko zenuen...

Donostiko TAE antzerkia ikasi

nuen eta lan pixka bat egin nuen aktore eta antzerki irakasle bezala. Zerbait gehiago nahi nuen, ordea, eta Madrilera joan nintzen ikastera. Diru pixka batekin joan nintzen, baina ikusten nuen diru hori gastatzen ari zitzaidala, eta ez nuen nahi tabernan lan egitea. Azpeitian, aurrez, Javier Jauregi ile-apaintzailearekin tarteka lan egin izan nuen; kajan kobratzen, burua garbitzen, kafea zerbitzatzen... Eta pentsatu nuen ile-apaindegiren batean harreraren lanean hastea. Deitu nuen ile-apaindegi batera, eta esan zidaten harreraren lan egiteko mutilak ez zituztela nahi, baina ile-apaintzaileak behar zituztela, eta ea proba egingo al nuen. Ezagun bat orraztu nuen proba hartan; urduri nengoen eta goitik

|||DATUAK|||||

|||Jaio. 1974ko abenduak 10.

|||Herria. Azpeitia. |||Bizitokia.

Berlin. |||Lanbidea. Ile-apaintzailea eta makillatzailea.

behera busti nuen, baina, azkenean, ez zen gaizki gelditu. Bertakoa esan zidan hobetzea bazegoela, eta kontratua sinatzera pasatzeko. Barrez hasi nintzen. Ez zidaten sinesten norbait orrazten nuen lehen aldia izan zela.

Zer gertatu zen gero?

Esku pixka bat hartu nuen ile-apaindegi hartan. Kurtso batzuk egitera bidali ninduten, eta, pixkanaka, jendeari ilea moztzen hasi nintzen. Kate horietako batekoa zen lan egiten nuen ile-apaindegia, eta nik zerbait gehiago nahi nuen. Ofizioa maite baduzu, kate horiek ez dira

lanerako onenak. Javier Jauregi gomendio bat eskatu nion, eta Madrilgo ile-apaindegirik onena zein zen esan zidan. Hara joan, eta zera esan nien: “Nik ezer ez dakit, baina hemen lan egitea nahi dut”. Grazia egin zien. Justu langile baten baten bila zebiltzan, eta hartu egin ninduten. Iruditzen zitzaidan behin ere ez nuela moztuko ilea haiek bezala, baina Londresera kurtsoak egitera bidali ninduten, eta, pixkanaka, aurrera egin nuen ile-apaindegi hartan. Aukera bat eman zidaten, eta maitemindu egin nintzen lanbidearekin. Oso zortedun sentitzen naiz.

Nola egin zenuen salto modaren mundura?

Lagun bat mundu horretan ibiltzen zen, eta Madrilgo Fashion



Agiriano modelo bat orrazten. ||| Nelohagen

Weekera eramaten gintuen, beraien lana nola egiten zuten ikustera. Hura ikusi eta esan nuen: "Nik hemen egotea nahi dut".

Ikusten zenuen gauza bakoitza are erakargarriagoa egiten zitzaizun.

Bai. Hor muturra sartzea oso zaila zen, ordea. Horretarako, leku zein une egokian egon eta pertsona egokia ezagutu behar duzu. Behin lagun hark esan zidan pertsona

bat behar zuela Women Secreten desfilean lan egiteko, eta ni nahi ninduela horretarako. Joan egin nintzen, bost pertsona orraztu nituen, eta oso ondo irten zitzaidan frogara. Handik bi hilabetera, mezu bat bidali zidaten Fashion Weekeko taldean nahi nindutela esanez. Sekulako beldurra sentitu nuen. Astebete lorik ezin eginda pasatu nuen, gaizki. Eta gero ja Cool agentzian sartu nintzen; agentzia

horrek kudeatzen du urtero Madrid Fashion Week. Aurtan, hamalagarren aldiz parte hartu dut bertan, eta oso-oso gustura nago.

Kanpotik ematen duen bezain brillantea al da pasarela-aren atzeko aldea?

Keba, kaos bat da. Bost egun irauten du Fashion Weekek, baina zortzi desfile izaten ditugu egunean. Ordu eta erdiro desfile bat izaten da, eta 40 minutu bakarrik iza-

ten ditugu pertsona bat edo bi orrazteko. Hala ere, adrenalina ematen dit niri horrek, harrapatu egiten zaitu erritmo horrek. Baina bost egunerako, gehiago ez. Agian, lau kilo argaltzen naiz horrelakoetan; inhumanoa da. Pasarelan ikusgarriena modeloak ikustea dela dirudi, baina desfile baten onena atzean dago: desfile bat bukatzen da, modeloak korrika datoz, ez dago denborarik, beste look bat prestatu behar da, maki-llatu... Mundu polita da, baina...

Noiz eta zergatik joan zinen Berlinera bizitzera?

Urtarrilean zortzi urte bete dira hara joan nintzela. Veneziako (Italia) Biennalera joan nintzen, eta handik Berlinera, lagun bat bisitatzera. Lehen gauean Matias ezagutu nuen, nire bikotekidea. Eta ile-apaintzaileak mundu osoan behar direnez, hara joatea erabaki nuen. Funtzionatu dit lanak, eta harremak ere segitzen du [barreak].

Zer proiektu dituzu aurrera begira?

Estudio bat ireki nahi nuen Berlinen, baina ile-apaintetako titulazio ofizialik ez nuen, ez zidaten uzten. Zarauzko Monte Albertian ikasketak egin berri ditut, eta, orain, ja, uzten didate. Ideia polit bat dut, eta lokal bila ari naiz.

Ziur jende pila bat orrazteko aukera izan duzula. Zein, adibidez?

Goya sarietarako Marta Etura orrazten dut beti, nire maitea da. Harez gain, beste ospetsu asko ere orraztu ditut: Nieves Alvarez, Veronica Blume, Isabeli Fontana, Daniela Braga, Blanca Padilla, Jon Kortajarena, Andres Velencoso...

Zein da orrazkera on bat egiteko sekretua?

Esku ona eta gustu pixka bat edu-

IKA argi lanak s.l. Instalakuntza Elektrikoak
Urko: 618 96 49 95 / Jon: 649 12 02 71
ikaargilanak@gmail.com www.ikonsternak.com
20730 AZPEITIA

Xabier margoak
Pinturak eta Parket Laminatuak f
Pablo VI, 20 - Tel: 943 15 73 25 - www.xabiermagoak.com

kitzea, zure aurrean dagoen horrek zer nahi duen entzutea eta haren onena ateratzea. Niri ez zaizkit egunerokorako asko elaboratutako gauzak gustatzen; nahiago dut zerbait normalagoa, "orraztu gabeko orrazkera" esaten dena. Izan ere, ile-apaindegira joaten zara, sekulako kortea egin eta kolore polita jartzen dizute, baina gero hartzen dugu etxean plantxa, hasten gara ilea kizkurtzen, eta txapuza bat irteten da. Horregatik, gauza arruntagoak gustatzen zaizkit, gutxi landutakoak, baina gustu eta esku pixka batekin egindakoak.

Zer da orain moda-modan dagoena?

Ez dago modan liso tabla hori, kizkur suabeak baizik. Bop klasikoak ere asko eramaten dira. Luzera ezberdinetako melenak ere modan daude, baita korte motz-motzak ere: flekilloarekin, kasko moduko moztetarik...

Zeren arabera aukeratu behar da orrazkera?

Osotasun baten parte da orrazkera. Horregatik, ile-apaintzaileok arreta handia jarri behar dugu. Pertsona bat atetik sartzen denean, nola datorren ikustea gustatzen zait; asko esan nahi du horrek niretzat. Norberaren estiloa, gorpuzkera eta aurpegiaren fisioomia izan behar dira kontuan; horrekin guztiarekin harmonian joan behar du orrazkerak. Nahiz eta

gauza batzuk modan egon, ez dira pertsona guztientzat egokiak.

Asko zaintzen al dute azpeitiarrek irudia?

Bai, asko. Ile-apaindegi oso onak daude Azpeitian nahiz Euskal Herrian, eta inguruotan diru asko egon da beti. Gazteek agian ez, baina gure amak edo amamak astero edo astean bitan joaten ziren ile-apaindegira. Kolore perfektuak eta sekulako kortea izaten zituzten, eta, egun, bide bera jarraitzen du jendeak. Dena den, gauza asko zikindu dira: ile-apaindegien kate horiekin ohitura onak galtzen ari gara. Baina ondo orraztuta ibiltzea gustatzen zaion jendeak badaki nora joan ilea moztera.

Zer desberdintasun nabaritu duzu azpeitiarren eta alemanen artean?

Berlin pixka bat alternatiboagoa da. Han jendeak mozketa eta kolore onak eskatzen ditu, eta, gehienek, blogarien mototsa. Orokorrean, askoz ere informalagoak dira Alemanian.

Garrantzitsua al da norberak bere buruari denbora eskaintzea?

Bai, pixka bat pinpirina izan egin behar da. Niri esaten didatenak parean topatutako lehen bi gauzak janzen dituztela... Hori ez! Gustatu egiten zaigu janzea eta ilea zaintzea. Azkenean, gure parte dira arropa eta ilea, eta erakutsi egin behar ditugu. Eta denoi



Asier Agiriano Azpeitira egindako azken bisitan. ||| **Ihintza Elustondo**

gustatzen zaigu gure alderik onena erakustea.

Azpeitia ez al duzu faltan sumatzen?

Bai, asko. Hala ere, sarri etortzen naiz, urtean lau bat aldiz edo. Baina familia pila bat sumatzen dut faltan, lagunak ere bai, kosta, jatekoa... dena. Txikiteoa ere bai, han ez baitaukagu halakorik. Han jendeak lana egiten du, eta, bukatzean, etxera edo gimnasia joa-

ten da. Lagunekin bi astean behin edo elkartzen naiz han, inork ez dugu denborarik...

Gabonetan izan zinen azkenengo Azpeitian. Zer egiteko aprobetxatu zenuen?

Ilobekin Donostiara joan nintzen egun batean, familiarekin afariak egin nituen, jan eta edan... Kilo batzuk hartu nituen, baina eskerak nire lanak kiloak botatzen laguntzen didan!*

BIYONA

BERRIKUNTZAK-REFORMAS

www.biyona.net / biyona@biyona.net

Etxebizitza
zaharberritzea
nahi duzu?



Abercaino poligonos, 2
Tel. 943 355 016
Zarautz

Santiago auzoa, 12
Tel. 943 343 443
Zumaia

Erositako etxebizitza
eraberritu nahi duzu?

Zer eskaintzen dugu?

Konpromisorik gabeko aurrekontua
Gremioen koordinazioa
Epeak betetzea
Erakusketa handiak

San Juan, 16 edif. AXIII
Tel. 943 852 110
Azkoitia

Gosolaga Kalea, 18
Tel. 943 348 241
Zestoa

Zirkululandia

O sasuna dut, eta eskerrak; lagunak ditut, eta eskerrak; maite naute, eta eskerrak; ametsak ditut, eta eskerrak; bizi poza dut, eta eskerrak; bihotzez, esker oneko sentitzen naiz, baina ez zorretan.

Bizitza ematean eta hartzean datza. Eskerrak emateko garaian, eskua zabaltu, heldu eta estutzen den bezala. Hartu eta eman. Besoak zabaltu eta bestea besarkatzen dugunean edo begiak lausotzean, estutu eta malkoak askatzen ditugunean bezala. Hartu eta eman, eman eta hartu. Eta hartu-eman horretan aberasten gara, bestearen ikuspuntua ikustera iritsi edo iristen saiatzen gara, behintzat.

Esan bezala, osasuna dut, eta kaletar petoa naizenez, Azpeitiko adokinek ondo baino hobeto ezagutzen dituzte nire oinetakoen zolak. Nire kabuz ibili zalea izanik, gehienetan nire erara ibiltzea maite dut. Ibiliak hausnarketa sakonak egiteko parada eman izan dit, sormenerako ideien olatuak ere izaten ditut, eta norbere buruarekin bakean egoteko ere, ariketa ezin hobia deritzot norbere kasa ibilian ibiltzeari.

Baina, aurrekoa garrantzitsua bada, bestea entzuteak, bestearekin hitz egiteak, lan egiteak edo bestearekin elkarbizitzeak ematen dio borobiltasuna zirkuluari, zentzua gizarteari eta gizakiari, nire ustez. Zuzeneko hartu-eman zalea naiz ni; bestearen ahotsa entzun zalea, bestearen begiak ikusi zalea, bestearekin egoteko denbora gelditu zalea. Horrek betetzen nau, komunitatearen parte sentiarazten nau.

Zirkulu asko ditugu herrian: batzuk, kulturatik eta zaletasunetik sortutakoak dira; besteak, afizioetatik sortutakoak; eta badira pentsatzeko moduetatik sortutakoak ere. Urteen poderioz, badira hormak gogortuak dituzten zirkulu sendoak; kolore bakarrekoak biltzen dituztenak dira beste batzuk. Ilusio eta lan askori esker sortu eta eraikitako zirkuluak inondik ere! Barne gorabeherak medio, lagunarte eta giro ederrez betetak dira asko eta asko; zirkuluei eta horiek osatzen dituzten kideei esker, erronkei aurre egin eta helburu asko lortu dituztenak.



||||||| **olatx aguado** |||||

||| Ordu erdi gorabehera, joan nahiko nukeen ekitaldi denak solapatzen zaizkit... Eta orduan bai, etsi egiten dut


Baina, zirkuluek babesa eta kide izaera eskaintzen duten arren, nolabaiteko burbuila ere izan daitezke; besteengandik bereizten zaituen arren, bestelako zirkuluetara iristeko muga izan daitezke.

Kalean nabilenean eta hormako kartel pilari banan-banan erreparatzen dieldanean, kartel bakoitzaren lau izkinak borobiltzen hasten zaizkit begien aurrean, efektu berezien moduan, eta zirkulu bilakatzen zaizkit.

Ados jar zaitezte

Interesgarria den elkarrizketa batera joango nintzatekeen arren, are interesgarriagoa den film ez komertzial batera ere gogotsu joango nintzateke. Orduan, noizean behin, edo urtean behin edo asko jota bitan, antolatzen diren plan alternatibo batek bereganatzen du nire arreta guztia... Norbera bitan egitea ezinezkoa denez, ordutegiari erreparatzen diot, eta tapa! Ordu erdi gorabehera, joan nahiko nukeen ekitaldi denak solapatzen zaizkit... Eta orduan bai, etsi egiten dut, haserretu egiten naiz, eta baieztatu egiten da "zirkuluen teoria". Zirkulu erdiko bira eman, kabalen malabarean zirkuluak biran ipini eta banan-bana erortzen uzten ditut bakarrarekin gelditu arte. Zer erremedio!

Mesedez, zirkulukideok, zaleak nahi badituzue, ikusleak edo entzuleak, ados jar zaitezte, eta zirkuluak zabal itzazue, eskutik heldu, koordinatu, elkar lagundu. Hartzera ireki eta ematera zabaltu! ✨



Putra

Zelanda Berria izan zen emakumeei botoa emateko eskubidea aitortu zien lehen herrialdea, 1893an. Hego Euskal Herriko emakumeek 1933an eman zuten boza lehen aldiz; eta 1945ean, Iparraldekoek. XX. mende hasieran, Marie Curiek irabazi zuen, senarrarekin batera, Nobel Saria, fisikaren alorrean. Lehen emakumea izan zen. Handik urte gutxira, berriro jaso zuen aitortza hori, beste esparru batean, kimikan. Bi arlotan Nobel saria lortu duen pertsona bakarra da. 1960an lehen ministro egin zuten Sirimavo Bandaranaike, herrialde bateko buru izan den lehen emakumea; Asia hegoaldeko Sri Lanka errepublikakoa, hain zuzen. Margaret Thatcher 1979tik 1990 artean izan zen Erresuma Batuko buruzagia.

Horiek guztiek eta itzalpean diren beste milaka emakumek borroka eta bakea egin behar izan dute, emakume izateagatik soilik. Andre jaiotzeagatik, eskailera bat beheagotik heldu diote munduari, eta sufritu egin behar izan dute tontorrera irteteko.

Sansebastianetan, aitortza egin zitzaizen duela 50 urte danborradan irten ziren lehen emakumeei. Orduan ere, ziur aski, hainbat gurenetan gaizki ikusiak izango ziren danbor-jotzaile haiek. Zenbait begitatiek, *putak* izango ziren. Araua hausten duen emakume oro bezala, ez ziren izango "etxerako modukoak". Ez ditugu urrun Hondarribiako eta Iruno alardeak. Gaur egun, aitortza egiten diegu emakume danborjoleei, eskerrak ematen dizkiegu. Dena den, ez dakit inoiz aitortu dugun haien sufrimendua, gizarte bezala eta herri bezala, Azpeitiak (Azpeitiaren zati batek) sentiarazi ziena. Ez litzateke soberan egongo.

Hona ekarri nahi nuke, gainera, 2009a artean bazirela gizonezkoz soilik osatutako taldeak gurean. Hau da, "normalizat" ikusten dugun berdintasun hori ez dela kontu historikoa.

Lehendabizi, emakume

Ez naiz izango ni ospakizunei zilegitasuna ken-



eneritz albizu

Emakumeak ez dira desoreka egoeran berez bizi. Ez dira gizonak baino gutxiago horrelaxe jaio zirelako

duko diena, horiek ere beharrezko direlako. Hala ere, gogorazi nahi nuke bide asko dagoela egiteko. Ez gara berdintasun egoeran bizi. Lehendabizi emakumeak gara; eta, ondoren, langileak, artistak eta kirolariak. Emakume batek badaki jendaurrera pausoa eman behar duen bakoitzean erreparatuko diotela bere itxurari, janzkerari, ileari, estiloari eta gorputzari. Begiratu egingo diote, eta komentatu egingo dute. Emakumeak badaki hori, eta hori jakinda joaten da lanera, igotzen da oholtzara eta iruten da zelaira. Eta, gero, ez alferrik, esaten dugu emakumeak falta direla bizitza publikoan: politikako lehen lerroan, musika taldeetan, kirolean eta egunkarietako azaletan. Gainera, emakumeen errua balitz bezala aurkezten da gabezia hori. Baina horren atzean, emakumeek sentitzen dute gaitasuna eta profesionaltasuna baino lehen epaituko dutela eme izatea eta eme izateko modua; eta, gainera, estereotipo batzuen barruan egingo zaiela sailkapena eta balorazioa. Eta ez naiz ari soil-soilik gizonen jarreraz, emakumeenaz ere ari naiz.

Emakumeak ez dira desoreka egoeran berez bizi. Ez dira gizonak baino gutxiago horrelaxe jaio zirelako. Emakumeek "arrakastarako" bide zailagoa badute, zapalduak izan direlako da. Haiek gutxiesteko neurriak hartu direlako eta kontzienteki apartatu direlako gune publikoetatik. Bien bitartean, 50 urteren ostean, puta izaten jarraitzen du araua hausten duen horrek.*



“Gorputzeko jarrera txarrak zuzentzeko eta tentsioak askatzeko gimnasia da Pancafit”

Iñaki Ruizek Pancafit metodoarekin hamaketan luzaketak egiten laguntzen die herritarrei. Azpeitiko Iñaki Azpiazu kalean eskaintzen ditu saioak.

Zer da Pancafit?

Gorputzaren jarrera berrorekatzeko eta giharrak modu orokorrean luzatzeko gimnasia da. Gainera, gorputzeko artikulazioak mugiarazten ditugu, beti ere, arnasketa eta erritmo jakin batekin. Tentsioak eta kontrakturak askatzen ditugu ariketekin.

Zer garrantzia du gorputzaren posturak?

Muskuluen eta artikulazioen funtzionamendu onaren adierazle da postura zuzen eta orekatu bat hartzea. Gorputzeko muskuluen bi herenek postura funtzioa dute, eta horiek lantzea eta estimulatzea ezinbestekoa da. Postura txarren eraginez, muskulu batzuk besteak baino gehiago lantzen ditugu, eta horietan gainkarga sortzen zaigu; kontrakturak eta muskuluetako tentsioak.

Nolako luzaketak egiten dituzue saioetan?

Muskulu katearen luzaketa orokorrak; hau da, burutik hanketara inoko muskulu guztiak luzatzea

lortzen dugu. Hamakaren angeluekin luzaketan intentsitatea gehitzen edo murrizten dugu, pertsonen beharren arabera.

Zer dira muskulu kateak?

Gure giharrek ez dute bakarrik lan egiten, taldeetan elkartzen dira eta muskuluen arteko kateak sortzen dituzte. Artikulazioetan edo muskuluetan deskonpentsazioen bat badago, estruktura osoari eragiten dio horrek modu negatiboan. Hamaken bidez, kaltetutako katea lantzen dugu, galdutako elastikotasuna berreskuratzeko eta blokeatuta dauden artikulazioak askatzeko. Horrekin guztiarekin, gure gorputzaren funtzionalitatea hobetzen dugu, eta eguneroko ekintzetan nabaritu egingo dugu.

Zer alde dago ohiko luzaketan eta hamakakoen artean?

Hamakarekin, luzaketa orokorra egiteaz gain, denbora guztian izango dugu gorputza lerrotaturik. Hamakaren sostenguak ez du uzten gorputza jarrera txarrekin edo lerrotatze ezarekin konpentsatzen.

Saioak banakoak al dira?

Talde txikiekin egiten dut lan. Asotean ordubeteko saioak eskaintzen dizkiet -hileko kuota 38 eurokoa da-, eta oso garrantzitsua da nik pertsona bakoitzaren arazoan berri izatea, lehen egunetik



ondo hasteko min horiek murrizten edo osatzen.

Nori zuzenduta dago Pancafit?

Bizi kalitatea hobetu eta lesioak sahistu nahi dituen edonori: kirolariei, ordu asko eserita egoten direnei, helduei, haurdun daudenei, umea izan berri dutenei...

Nolatan ezagutu zenuen Pancafit metodoa?

Bi belaunetan ebakuntza egin zidaten, eta, gainera, eskoliosi txiki bat dut bizkarrean. Posturari lotu-

tako deskonpentsazio asko nituen. Duela 4 urte gomendatu zidaten hamaka bidezko saioetara joatea, eta halaxe egin nuen. Zumaian egin nituen saioak, eta epe laburrean egin nuen hobekuntza ikusita, lesioen erreabilitazioan espezializatzea erabaki nuen. Gainera, askotariko formakuntzak egindakoa naiz, beti ere, gorputzaren jarrera zuzenketan eta pertsonen ongizatean eragiteko asmoarekin.



Iñaki Ruiz

Iñaki Azpiazu kalea, 5 (Dantzakiren lokala)

Telefonoa: 666 19 06 53

E-posta helbidea: rusku2@msn.com

Webgunea: www.luzafit.com

Oharra: lehen saioa doakoa izango da.

HIZKUNTZ ESKUBIDEAK

Ahozkoa paperean jasota

Kalean da 'Azpeitiarrez Natul', herritarrek egindako ekarpenekin herriko hizkeraren ehunka esapide, esamolde eta hitzekin osatutako liburuxka. Uztarriaren bazkideek doan jasoko dute etxean.  Uztarria

Uztarriaren 27an aurkeztu zuten Natul euskara elkarteak, Uztarria Komunikazio Taldeak eta Udalak *Azpeitiarrez Natul* liburuxka Sanagustin kulturgunean. Azpeitiko hizkeraren ehunka esapide, esamolde eta hitz jasota daude argitalpenean, guztiak herritarrek egindako ekarpenetan oinarrituta.

Natul elkarteak orain dela urtebete pasatxo mar txan jarritako egitasmoaren fruitua da Uztarria komunikazio taldearen eta Azpeitiko Udalaren laguntzarekin plazaratutako liburua. Herritarren ekarpenak jaso eta galbahea pasatu ostean, webgune batean bildu zituzten Azpeitian erabiltzen diren hitzak eta esapideak. Orain, paperera ekarri dituzte ehundik gora herritarrek egindako ekarpenak. Azpeitian soilik erabiltzen

diren hitzak eta esapideak, Azpeitian asko erabiltzen direnak edo adiera berezi batekin erabiltzen direnak, eta Azpeitian erabilera galtzen ari direnak jaso dituzte.

Azpeitiko euskalki "bizi-bizia", ahozko jarduna, gordetzeko sortu zuten Azpeitiarrez Natul egitasmoa, baina argi utzi dute liburua ez dela hiztegi bat, "ezta azpeitieraz idazteko jarraibideak ematen dituen eskuliburua ere". Gainera, egitasmoa ez da bukatzen liburuarekin; herritarrek ekarpenak egiten jarraitzea nahi dute Natulekoek, orain artekoak osatzeko eta azpeitieraren gordailua gizentzen joateko.

5 euroren truke eros daiteke liburuxka Sanagustinen eta Uztarrian. Uztarriaren bazkide guztiek, hori bai, doan jasoko dute etxean.✱



Ane Uranga, Eneritz Albizu, Garbiñe Bereziartua, Eneko Etxeberria eta Josu Labaka, aurkezpenean.  J. Frantzesena



Aitor Bengoetxea.

ESANA DAGO

“Sanagustin kulturguneak erakutsi du herrian gauza asko direla posible. Askok eman dio herriari eta, aldi berean, herriak asko ematen dio”

AITOR BENGOTXEA
Kulturaz kooperatiba

“Zergei buruzko eztabaida sana da, baina izenburu katastrofistak bilatzea ez da eztabaida”

“[Gipuzkoan] izenez eta aurpegiz ezagutzen ditugu enpresak eta enpresariak: herrikoak dira”

JABIER LARRAÑAGA
Ogasun diputatua

KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK

URBISTONDO MARGOAK

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

 **Aiortza Autoak**

CITROËN 943 81 915 - AZPEITIA
aiortzaautoak@telefonos.net

MOTA GUZTIETAKO AUTOEN KONPONKETAK

Izan eta sentitu

Urtea hasteko, aurren, aspaldiko partez, sukarra etorri zait bisitan. Etorri bada etorri, nire barruko egitura osoa dar-dar batean utzi du. Ustez seguru eta zihur nuenaren aurrean, zalantzaz beterik utzi nau. Nor naiz, zer naiz eta naizena zertarako naiz? Axaleko galderei erantzuteko gaitasunik ez, eta hasi hadi orain, galdera sakon horiei tajuzko erantzunen bat eman nahian. Hireak egin dik Urbietan. Akerraren odola duen xapoa nintzelakoan, orain zalantza izugarri. Sansebastianek aspertu egiten naute; inauteriak zentzugabeak iruditzen zaizkit; saninazioetan, ekartzen ez banaute,

ez naiz etorriko; santotamasek uxatu egiten naute; eta Gabonek, gabon madarikatuek, haserretu eta deprimitu egiten naute. Biak batera.

Konturatuko zinenez, horrela iraun bai, iraun liteke, baina bizi? Jarrai dezadan. Txotxeko denboraldia hasi da, baina ni ez nauzu ilaran basoa eskuan dudala zain ikusiko; alkoholik ez dut edaten; jan, ahal dudun garbien jaten dut; gaua ez dut maite... Horrelako tipo batekin zer egin liteke? (Lapatx ere itxi dute). Munduari nola demontre esan behar diot nik azpeitiarra naizela xapo batek serietik ekarri



|||||||txetxu urbieta|||||

behar duen guztiari "alergia" badiot?

Atera dudun ondorioa honako hau da: azpeitiarra naiz Azpeitian jaio nintzelako –Atxuian, Valentinari eta Mariari esker–, baina ez naiz azpeitiarra sentitzen, edo beste era batera esanda, azpeitiar batek sentitu behar lukeena sentitzeko gai ez naiz. "Zer haiz hi Txetxu, zer haiz?", da neure buruari aspaldian egiten diodan galdera. "Lasai, Urbietan ez duk ezer larria. Aberi galanta daukeek hik. Beste ezer ez. Pare bat kalimotxorekin dena sendatuta". Baina alkoholik ez badut edaten, nola sendatu?*

|||||IKUSTEKO|||



▲BURDINBIDEAREN MUSEOAREN BIKIA GALIZIARRA.

Urolako Trena zenaren Azpeitiko geltokiak, gaur egungo Burdinbidearen Euskal Museoa denak, badu bikia Galizian (argazkian). 1943an eraiki zuten, Ramon Kortazar Urruzola arkitektoak Azpeitikoan oinarrituta egindako diseinua jarraituz. Ordesen (A Coruña) dago eta, Azpeitikoak bezala, aspaldi utzi zion geltoki izateari. 📧 Mailo Oiarzabal 📍 Galicia Maxica*

|||URTARRILEKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN...|||



|||ieltxu caballero|||



Egin zuten bisita

Bigarren eraso

POLITIKA. Azken hilabete hauetan, Euskal Herriko hainbat tokitan, oroigarrien aurkako eraso ugari izan dira: margoketak, pegatinaz betetzea edota txikizioak, besteak beste. Azken eraso horietako bat Pasaian egin dute; hain zuzen, badian egindako segadaren oroigarrira erasotu dute. Zer lortu nahi dute horrekin? Ahaztea? Guztiz kontrakoa lortzen ari dira, indar gehiagorekin gogoratuko ditugu eta.

FESTAK. Urtero bezala, ezin zuten gure herrira bisitarik ez egin Ekialdeko Errege Magoek. Etxeko txikiei gutuna txukun eta garbi idazten lagundu Erregeen laguntzaileei emateko, desfileara joan gozoki batzuk hartzera eta goiz lotara. Goizean, umeek opariak aurkitzen eta irekitzen dituztenean aurpegian izaten duten ilusioa eta poztasuna ikustea ezin da munduko diru guztiarekin ere ordaindu.



Azpeitikoa ala Donostiakoa? Azpeitikoa, noski!

FESTAK. Urtarrilari amaiera emateko danbor hotsak izaten ditugu gurean. Jantziak prestatu eta txukundu, danborrari hautsa kendu eta afarira. Afalostean, danbor-jotzaileak kaleak hartzen hasten dira pixkanaka, baina ospea, beti bezala, Donostira, nahiz eta Azpeitikoa mila

aldiz ederragoa izan. Ehundaka herritar hainbat taldetan banatuta plazan, eta jantzi guzti horien aniztasuna; guztiak *San Sebastian Martxa* jotzen. Behin Azpeitiko plazako irudia ikusita, Donostiakoak txikia eta dena dirudi!*

INKESTA

karnabaLetako
arropa erosi edo
berrerabili?

Ainitze Agirrezabala

MAITE AZPIAZU

34 urte



"Nik betidanik
berrerabili egin
izan dut, gurasoen
ganbaratik garai
bateko arropa hartuta. Ohitura
bera dut semeekin ere, eta
Elkargunetik bigarren eskuan
erostea ere ez da aukera txarra".

AITZIBER LANGARAN

39 urte



"Mozorro batzuk
erosita ditugu, eta
hiru seme-alaben
artean berrerabili
dituzte. Eta familiakoen eta
lagunen artean ohitura badugu
jantziak trukatzeko".

NAGORE ALBERDI

27 urte



"Etzeko jantziekin
moldatu izan gara,
baina, normalean,
erosi egiten dugu,
edo bestela tela eskuratu eta
geuk josi".



Agurbenhur eta bonjour?

Laurent Fignon txirrindulari handiak bere bizitzako arlo guztiak hainbat urteko ziklotan banatzen zituen; behin ziklo hori amaituta sentitzean, *agurbenhur* zaharrari eta *bonjour* berriari. Baditugu, ordea, bene-benetan gustatzen zaizkigun pertsonak-jarduerak-gauzak-egoerak, eta ziklo amaiera hori norberak erabakitzen ez duenean, zerbait haus-ten zaigu barruan.

Sei urteko ibilbidea amaitu berri dut eskola kirolean entrenatzaile gisa. Asko gustatzen zait saskibaloia. Dakidan apurra irakastea. Eta barruko haustura txikia den arren, ematen dit pena, ondo entrenatzen eta jokatzeko baikenuen; baina, era berean, gustura nago egindakoarekin, helburuak bikain bete ditugula iruditzen baitzait: kirola egitea, saskibaloia oinarrietz jabetzea, lehiakorrak izaten saiatzea, eta, horrekin lotuta, irabazten zein galtzen jakitea, disfrutatuz eta denek parte hartuz.

Bukatu dugu saskibaloia-aldia, bukatu dut nire zi-

kloa, eta nire agurra eskola kirola bera ulertzeko beste modu batekin batera dator: lehiakortasuna saihestu eta parte-hartzea zein berdintasuna sustatu nahian –hala ulertu dut, behintzat–, saskibaloiko zein futboleko finalak kendu dituzte eta neska-mutilek nahastuta elkarrekin jolasten (jokatzen?) dute.

Eskola-kirola ulertzeko modu berri hori abian jarri zutenean, duela bi ikasturte, ez zitzaidan ideia txarra iruditu, kirolean parte-hartzea eta berdintasuna sustatzearen alde bainago. Kirolaren *arkadia* horrek, ordea, baditu albo-ondorioak; zehar-kalteak. Izan ere, neska askok, mutilekin batera jardun behar dutela jakitean, muzin egiten diote eskola-kirolari, eta horrela, paradoxikoki, kalte parte-hartzeari zein berdintasunari. Gainera, ondo ulertutako lehia, alegia, norberak egindako hobetzeko ahalegina, taldearen mesederako bideratzea oso garrantzitsua iruditzen zait. Beraz, *agurbenhur*, bai, baina *bonjour*!*



Imanol Amiano

galDETZEN hasita, txakur kakak jasotzen
ez dituzten txakur jabeak noiz hasiko
dira horiek biltzen? Uztarria

Danborrada

Duela egun gutxi, nire bizitzako esperientzia hunkigarrietako batez gozatu nuen Azpeitian. Lehendabizikoz, danborradan ez nintzen ikusle soila izan; guztiengan zirrarak sortzeko gai den danborri orru eginarazi bainion. Pribilegioa, urduritasuna, zirrara... "Ospakizun batek nola batu dezakeen jendea", horixe pentsatu nuen. Belaunaldien, ideologien, kulturen edo gizarte-mailen arteko desberdintasunak izanda ere, gau batez, garrantzitsuena guztiak batera danborra jotzea zen. Eskarmentu handikoek ni bezalako hasiberriak animatzen gintuzten, eta irri artean, musika eta kolore artean, gau batez zoriontsu izan ginen.

Komunean dugun zerbait babestearren, gure arteko desberdintasunak alde batera zenbat aldiz utzi beharko genituzkeen... Gogoeta horixe egiten dut nik. Oinarritzko hainbat eskubide galtzen dugu elkarrengandik urruntzen gaituen ikuspuntu ñimiñoetan zentratzeagatik, eta elkarrekin indar handiagoa du-

gula ahaztu egiten zaigu. Argi utzi nahi dut, badaezpada ere, desberdintasun mota batzuekin ezin dela horrelako konpromisorik hartu, asko ezin baitira zaku berean sartu, eta, beraz, ez naiz horiei buruz ari. Ez dut gure idiosinkrasia zalantzan jartzerik nahi, baina zenbait kasutan, bat egin beharko genukeela iruditzen zait, danborradan egin genuen bezala, guztiok eritmo bera joz gure danborrek honako haxe esan dezaten, adibidez: "Erabakitzeke esku-bidea dugu, indarkeria matxistatik ez dugu nahi, beste gauza askoren artean". Zatituta dagoen herriak ez du aurrera egingo.

Lehen kanpotarra nintzen lurralde honetan –barkatu neure burua jada hemengotzat dudala esatera ausartzeagatik–, zuengandik desberdintzen ninduen horretan neukan fokua jarrita, eta horrek ez zidan integratzen uzten. Eskerrak ez nintzen horretan geratu, bestela hainbeste abentura galduko nuen, ez nuen danborradan parte hartuko...*



Linette Montalvo

SOKKE 500

DISEINU
PERTSONALIZATUA
ETA BROADATUA
AZPETIAR PETO-PETOAK

LOKARRIA EZ
ASKATZEKO SISTEMA
SOKA EZ DADILA ETEN

ZURI-GORRI
KOLOREKOAK
ZEZENA BELTZ

500 URTEKO
HISTORIA
KALEAN GORA
ETA BEHERA

ALDE ZAHARREKO
HARBIDEAREN TZAKO
EGOKTURIKO ZORUA
PAUSO IRMOZ KORRIKA

I+G+B APLIKATUA ETA
OINETAKO ADIMENTSUAK
'BOTIJO' BEZAIN ARGIAK

PATXO GATIE

enok sudupe

Instant batean...

Bagera!". Azpeitiar zein *azpeitiano* egu-notan pozez eta alai. Ilaran zuzen joatea eritmoak eta musikak bat egitea baino garrantzitsuagoa den festako moztorra gorde berri dugu, eta egun batez izan nahi dugunaren itxura hartzea bermatuko digun jantzia prestatzen gabilta. Zezenak harrapatuko gaitu horretan (ere), aurten inoiz baino literalago gainera.

"Gu ere bai!". Azpeitiar zein *azpeitiano*, umore ona zabaltzen saiatuko gara egun seinalatu hauetan, eta kaleak hartuko ditugu, tamalez, festen aitzakian ez bada, eragin ezin daitekeen moduan. Eta kaleekin batera ta-

bernak ere beteko ditugu. Batzuek ibilbide finkoa dute –tradizioa traizionatu ezinean–, baina ohikoa da tabernara sartu aurretik hainbat faktore ebaluatzeko instant bat hartzea, barra hori geltoki bihurtuko dugun edo ez erabaki aurretik. Segundo gutxiko zalanza. Ziurrenik, ingurukoekin katigatu ez eta aurretik zoazten potearen arduradunok hartzen duzen erabaki inkontzientea. Baina ariketa bat proposatzen dizuet: pentsa ezazue segundo horietan baloratzeko gai garen faktoreekin; zerrendatu eta azter ditzagun.

Espazioa: dantza egiteko izango dugun

lekua edo tragoa eskatzerakoan izango dugun irisgarritasuna neurtzen du. Jende kopurua: momentua baino lehenago ezagutu eta kontrolatu ezin dugun arren, garrantzitsutzat jotzen den datua; lokalaren tenperaturarekin eta gorputzeko izerdiarekin zuzenki proportzionala. Barrukoen adin tartea: faktore hori beste baterako utziko dugu inor mindu ez gaitezen. Musika: musika ere zerrendatu duzula faktoreen artean? Ezaba ezazu, musika aukera desberdinekin egin duten moduan; izan ere, beldur naiz Lolitak baltseatze-ari utziko ote dion perreatzen hasteko.*



|||||felipe murillo|||

Erotikan Plax!



||||haizea egiguren-edurne mendizabal (Arremanitzeko kideak)|||

Gozogilea da ogibidez Inazio Egaña. Abizen hori du izen familiako negozioa duten Egaña gozotegia. Egañari egokitu zaio hila honetan galderei erantzutea.

116 urte bete ditu Egaña gozotegiak. Zein da sekretua?

Lanbidea maitatzea.

Gozogintzan sortzailea zara. Zure erotikan sormenak ba al du lekurik?

Bai, ahal den neurrian.

Zenbat azukre botatzen diozu bizitzari?

Askok, baina gatza eta piperra ere bai, e!

Zer postrerekin seduzituko zenuke gustuko pertsona?

Frutazko pastel batekin. Koloretsua, bustia... [Barrez]

Zer behar da nor bere buruarekin gozo sentitzeko?

Lasai bizitzea.

Nola jarriko zenioke ginga harreman bati?

Maitasunez eta errespetuz.

Azpeitiarrak animatzen al dira zapore berriak dastatzera?

Pixkanaka irekitzen ari garen

||||INAZIO EGAÑA|||



Jaio. 48 urte.
Herria. Azpeitia.
Bizitokia. Azpeitia.
Lanbidea. Gozogilea.

arren, joera tradizionalekoak gara.

Zer osagai aukeratuko zenuke mundu hobe batean bizitzeko?

Elkartasuna, besteen tokian jartzeak asko lagunduko liguken.

Eskuekin ala tresnekin?

Eskuekin, noski!

Gozotegiaren nagusia zara.

Sexu kontuetan, nola senti-

tzen zara erosoago: gidari lanetan edobeste norbaiten gidaritzapean?

Bietan, txandaka.

Anekdotarik bai?

Mutil kuadrilla batek ezkon aurretiko bazkarirako aludun pastel erotiko bat eskatu zigen. Ohartu gabe, zakil formakoa egin genien. Bazkalostean, pastela ateratzeari, a ze sustoa!

Izozki zapore bat?

Mangoa.

Jaki afrodisiako bat?

Txokolatea.

Zerk urtzen zaitu?

Eguzki goxoak.

Oroitzapen bat?

Askok ditut. Usamenarekin lotzen ditut askotariko oroitzapenak.

Kolore bat?

Urdina.*

||||Erotikan Plax! Sexu eta bikote aholkularitza:
Sindikatu Zaharra, 2. solairua
www.azpeitikoudala.eus/sexu (688 89 79 20)
Hitzorduak: hilaren 7an
(16:00-19:00) eta 24an (10:00-13:00).



▲URTARRILA.

Artubia, Jose Artetxe eta Ildefonso Gurrutxaga kaleen arteko jolas parkea dagoen plazari Balentina Agirre Elorza emaginaren izena eman zioten, hilaren 28an. Azpeitiko kale izendegiaren historian efemeride berezia izan zen, emakume izeneko aurreneko plaza baita.



▲OTSAILA.

Valentin Bengoa Etxeberria (Aretxak) hil zen hilaren 24an. ELA sindikatuko kidea izan zen, eta Loiolako jesuita izan zen, eta Azpeitian egindako ikasketen alde, besteak beste.

2017a argazkitan

Iaz hainbat gertakari izan zen herrian. Horietako batzuk ekarri ditu Uztarriak hona, joan den urtearen errepasoa egiteko. 📅📷 Ainitze Agirrezabala



baleta, 1923) sindikalista eta jesuita
o historikoetakoa izan zen, eta 50
ten etxean. Abertzale eta militante
in zuen lanik horren alde;



▲ MARTXOA.

Jabier Bergarak 65 urte bete zituen San Sebastian egunean Azpeitiko Udal Musika Bandako kide bezala, eta omenaldia egin zioten Sanagustin kulturgunean, Udal Musika Bandak Julian Barrenetxea abesbatzako kideekin batera eskaini zuen inauterietako kontzertu berezian. Errekintoarekin debutatu zuen bandan Bergarak, baina egun bonbardinoa jotzen du.

► APIRILA.

Espainiako Urrezko LEB Mailara igo zen Sammic ISB taldea hilaren 16an, ligako azken aurreko neurketa irabazita. Iker Buenoren mutilek denboraldi bikaina egin zuten, 30 partidatatik 23 irabazita. Iker Bueno Zilarrezko LEB mailako entrenatzaile onena izendatzeaz gain, Sammic ISBko hainbat jokalariri ere aitortu zioten egindako lana.





▲MAIATZA.

100 urte bete zituen Basilio Urbistondo gudari urrestildarrak, hilaren 30ean. Eguneke zentroan zoriondu zuten bertako kideek, senitartekoek eta udal ordezkariak. 1936ko gerran Errepublikaren alde borrokatu zuen Eusko Gudarosteko San Andres batailoian, eta hamaika hilabetez gaitibu izan zuten.

▼EKAINA.

Iaz bete ziren 30 urte Azpeitia eta Hazparne senidetu zirela, eta bi herriak sei etapatan oinez lotzen dituen 'Azpeitia-Hazparne. 30 urte' egitasmoa hilaren 4an bukatu zen, Hiru Zango eguneko festarekin. Bestalde, irailaren 23an, Gernikako arbola landatuz irudikatu zuten senidetzaren urtemuga Hazparnen (Lapurdi).



▲UZTAILA.

Izarraizko Atea parkea uztailaren 5ean inauguratu zuten. Belardiak, zuhaitzak eta ura dira aisialdirako parke berriko osagai nagusiak.

▼ABUZTUA.

50 urteko gizon azpeitiar bat hil zen istripuz Glual Energy enpresan, hilaren 25ean.



▲IRAILA.

Sagardoak Azpeitiarekin duen lotura islatzen duen 'Sagardoa Azpeitian' liburua argitaratu zuten. Laxaro Azkunek idatzi zuen eta Juan Joxe Agirrek egin zituen argazkiak.



▲ URRIA.

Espainiako Poliziak 1984ko martxoaren 22an Pasaian hil zituen Komando Autonomo Antikapitalistetako lau kideekin gertatutakoaren bueltan osatu duten 'Pasaia badiak' dokumentala herritarren aurrean aurkeztu zuten Yuri Agirrek, Xabier Otamendik eta Erik Aznalez Soreasu antzokian, hilaren 27an.



▲ AZAROA.

Aizkoran egindako ibilbideagatik, omenaldia jaso zuen Jose Ignazio Orbegozo 'Arria II'ak hilaren 25ean, Izarraitz pilotalekuan. Eta astebete lehenago, aizkolariaren biografia kaleratu zuten. Azaroaren 18an, berriz, Imanol Arregi 'Iturbide' pandero-jotzailearen biografia jasotzen duen 'Iturbide, igitai jolea' liburua eta diskoa aurkeztu zituzten; Amagoia Gurrutxagak idatzi zuen lana. Argitalpenekin jarraituz, abenduan beste bi lanek ikusi zuten argia: Enekoitz Esnaolaren 'Luhuso. ETAren armagabetze zibilaren kontakizuna' liburuak eta Pello Elorzaren 'Aberria bihotzean: Azpeitiko EAJren ehun urtetik gorako ibilia' argitalpenak.

▼ ABENDUA.

Urte Zahar goizean hilda aurkitu zuten aurreko egunean La Mongien desagertu zen eskiatzaile azpeitiarra. Pistatik kanpo eskiatzen ari zela haitz batzuen kontra jo ondoren hil zen 24 urteko gaztea.✱



Zeinetakoa zara zu?

Ezizenen kulturak indar handia izan du gurean. Izena duena bada eta ezizena dutenak ere badira; eta ez dira gutxi, gainera. 📌 Mailo Oiarzabal/Julene Frantzesena/Thintza Elustondo

Azpeitiarrak xapoak direla aski jakina da. Badira, baina, familia ezizenak dituzten herritarrak ere. Hainbat dira baserriaren edo etxearen izenez deitzen dietenak; edo senideren baten ofiziotik datorren ezizenez ezagutzen direnak; edo senitartekoren baten izena goititzen dutenak. Belaunaldien arteko transmisioa hautsi ez da egin, baina asko galdu dute indarra goitizenean. Ez daude, noski, diren guztiak, baina daudenetako batzuk ekarri ditu Uztarriak honako erreportaje honetara.

MUSIKOMAIORRENEKO-AK

Kontxita Bereziartuaren (Azpeitia, 1922) aita zenaren ofiziotik datorkie ezizena haren hurrengo belaunaldiei. Hain zuzen ere, Hilario Bereziartua (Ataun, 1892) Azpeitiko Musika Bandaren zuzendaria izan zen 1915etik 1940ra bitartean, eta, orduan, musiko maiorra deitzen zitzaion bandaren gidaritza zuen pertsonari.

Bereziartuak oroitzen duenez, herrian ezagutzen zen beren aita, eta beraiek ere musikomaiorrenekoak bezala ezagutzen zituzten. "Txikitan jendeak nor ginen galdetzen zigunean 'musikomaiorrenekoak gara', esaten genuen". Aita musikaria, eta amak dantza egiten ez ziela uzten dio Bereziartuak: "Musika entzun orduko dantzan hasten ginen gu, eta aitak hala esaten zion amari: 'Alabek aita dagoen tokian egoteko baimena dute'. Dantza pila ederra egiten genuen.



Justi Olaizola, Kontxita Bereziartua eta Lurdes Olaizola musikomaiorrenekoak. 📌 Julene Frantzesena

Sasoi hartan kongregazioan nengoen, eta bidali egin ninduten dantza egiteagatik".

Kontxitaren seme-alabei ere hala deitzen diete. Horietako bi dira Justi (Azpeitia, 1950) eta Lurdes Olaizola (Azpeitia, 1959), eta beraingana ere iritsi zen aitonaaren ogibideari lotutako ezizena. "Lehen zuzendariari hala deituko zitzaion, eta... Ohikoa zen ofizioari lotutako ezizenak izatea familiek". Ahizpek esan dutenez, hurrengo belaunaldira ez da iritsi musikomaiorreneko goitizena. "Gure seme-alabei ez diete horrela deitzen, ez diet sekula entzun behintzat", dio Justik. Eta Lurdesek esan du beraiei ere gero eta gutxiago deitzen dietela horrela. "Umetan askotan esaten ziguten; orain, bateren batek esan izan digu 'a, zu musikomaiorreneko zara', baina hortik aurrera ia inoiz ez. Galtzen joan da, hurrengo belaunaldietara ez da iritsi".

Aitaren aldetik ere badute ezizena Justik eta Lurdesek. "Gure aitari Mantxille deitzen zioten, baina ez dakigu ez nondik datorren eta ez zergatik deitzen zioten horrela".

ITURBIDETARRAK

Familia handia da, inondik, iturbidetarrena. Imanol Arregi (Azpeitia, 1935) pandero-jotzailea da hamar senideetan zaharrena. Iturbide baserrian bizi da Imanol, Milagros Azkue emaztearekin, baina hain familia jendetsua izaki, egunero izaten dute bataren edo besteren bisita. Familiari ezizena eman dion baserriar lanera joanak ziren elkarrizketaren egunean Joxe Mari Arregi (Azpeitia, 1948) eta haren seme Aitzol Arregi (Azpeitia, 1981). Graziarik ez zaie falta loiolatarrei, eta hizketarako gabeziarik ez dute.



Hainbat iturbidetar baserriko sukaldean. ||| **Julene Frantzesena**

Iturbide deitzen diote Imanoli, baita haren anai-arreba batzuei ere, baina "gainerakoei Iturbidekoak edo iturbidetarrak", Joxe Marik dioenez. "Lehen, askotan, etxea jasotzen zuenak hartzen zuen baserri izena, eta besteak hangoak bezala izendatzen ziren; normalean, Iturbide deitzen digute, baina batzuek Iturbidekoa esan izan ditate". Aitzolek esan duenez, jendeak Iturbide deitu izan dio bere izena ez dakielako: "Jendeak badaki iturbidetarrak garela". Belaunaldietan mantendu da etxearen izena daraman goitizena, baina aldaketak ere izan ditu. Izan ere, Imanolen alaba Ainhoak dio Iturbi deitu izan diotela. Ainhoaren alabei ere deitu izan diete modu horretan: "Andereño batek Iturbide deitzen dit".

Imanolek dioenez, "aspaldikoa" da baserria: "400-500 urte izango ditu". Halere, beraien aitona-amonak izan ziren hara joaten aurrenak. "Gure aita eta osaba-izeba gehienak Errekarten –gaur egungo Garate Anaiares etxea– jaio ziren, ez Iturbiden". Halere, Imanolek dioenez, beraiek izan dira etxearen goitizena hartzen aurrenak. Aitzolek uste du Imanolek zabaldu duela goitizena. Imanolen arabera, berriz, senideetan zaharrena izateak "gauza bat" ekarri dio ona: "Zaharrena izanda neuk jan nuen lehenengo taloa. Gainerakoan, hauek denak aguantatu behar. Denak estudiantzera batera eta bestera, eta ni hemen lanean".

Arregitarak gaitzizenarekin gera zitezkeen Iturbide baserriko familiako kideak, baina ez da hala izan. Imanolek Arregi sinatu beharrean Iturbide erabiltzen duela azaldu du, eta haren anaia Joxe Marik ere bai zenbaitetan:

"Enkargu bat-edo jaso behar badut, izena galdetzean Joxe Mari *Iturbide* esaten dut".

XAMARTIÑENKOAK

Lehengusuak dira Felisa Garmendia (Azpeitia, 1940), Paco Garmendia (Azpeitia, 1943), Ignacio Garmendia (Azpeitia, 1950) eta Joxe Mari Garmendia (Azpeitia, 1952). Haien aitona eta amona Urrestillako San Martin baserri-
ra ezkondu ziren, eta baserriaren izena oinordetzan hartu zuten zazpi seme-alabek eta bilobek. "Gure aitona-amonak izan ziren Xamartin ezizena jasotzen aurrenak", azaldu dute. Dena den, Joxe Marik adierazi duenez, Xamartin gaitzizena ez zen baserriaren izenagatik zabal-

du. "Gure aita eta osabak lantegi bat zabaldu zuten Aranean, eta denek Xamartinen tailerra deitzen zioten. 60ko hamarkadan denda zabaldu genuen, eta geuk jarri genion hari Xamartin izena".

Paco eta Ignacio San Martin baserrian jaioak dira, eta, gaur egun, Ignacio eta bere familia

Felisak gogoratu duenez, hainbat familia bizi izan zen baserrian beraien aitona-amonen aurretik, baina "asentatu zen bakarra" beraiena izan zela dio Joxe Marik. Horregatik, garmendietarrek diote beraiei soilik deitzen dietela xamartindarrak. Halere, lehengusuek uste dute ezizen hori gehiago erabiltzen dutela herriarrek beraien belaunaldietan. "Gure adineko jendeak xamartindar bezala identifikatzen ditu gure seme-alabak, baina lagunek ez diete horrela deitzen". Ignaciok, baserrian bizi denez, bere izena esaten lotsatu egiten dela dio barre artean: "Ni baserriarekin lotzen naute, izenik ez daukadala ematen du: Samartingo Paco eta Samartingo Inazio gara anaiok. Gainera, anaia gaztea naizenez, askok 'Xamartinen anaia' deitzen didate".

Joxe Marik gogoan du beraien anaia bati gertatu zitzaion anekdota: "San Juan tailugilea zenarenenean zegoen, eta telefonoz deitu zuen norbaitek: 'San Pedro?'. Eta besteak: 'Ez, hemen San Juan'. Eta telefonoaren bestaldekoak: 'Aizu, txantxa gutxi e!'. Eta San Juanek: 'San Juan naiz, eta San Martinekin nago'. Horrelaxe eskegi zuen telefonoa".

PRAKAUNDITARRAK

Ugariak dira prakaunditarrak, eta hizketarako jario eta abilezia berezidunak ere bai horietako



Joxe Mari, Felisa, Paco eta Ignacio xamartiñenekoak. ||| **Julene Frantzesena**



Prakaunditar batzuk Prakaundineko etxea zegoen tokian. ■ Mailo Oiarzabal

asko. Ez da erraza zehaztea belaualdiz belaualdi gaur arte iritsi den azken dohain horren jatorria, baina bai ezizena aspaldikoa dela eta Urrestillan duela sorburua. Pilar (Azpeitia, 1931) eta Jabier Lazkano (Azpeitia, 1948) anai-arrebak, Manuel Etxeberria (Azpeitia, 1935) eta Arantxa Etxeberria (Azpeitia, 1948) lehengusuak dira eta, antza, lehen Prakaundi haren birbilobak; Manuelen seme Julen Etxeberria herenaitona izango zen, beraz.

Gotizenaren arrazoa edo sorrera, berriz, esanahi literalarekin lotzen dute. "Praka oso zabalak erabiltzen omen zituen eta, behin, Sinberguentzakoz zubitik pasatzen ari zela, baten batek esan omen zion 'horixe ba, praka haundi', eta horrekin geldituko zen. Gure amak horrela kontatzen zigun, behintzat", kontatu du Arantxak.

Birraitona bezala, urrestildarra zen familiaren ezizenaz hitz egiteko elkartu diren lehengusuen aitona ere, Joxe Domingo Etxeberria *Prakaundi*. Kalekoa berez, baina ezkondu eta Altunako baserrietako batean jarri zen bizitzen, Txatonean, maizter. "Han jaio ziren seme-alaba denak, sei mutil eta bi neska", azaldu du Pilarrek, bere amaren eta senideen belaualdira igarota. "Baserri hori omen zen Azkoitiko San Juan bainuetxeko nagusiarena. Bidali egin zituzten Altunatik, zortzi umerekin, eta orduan etorri ziren Azpeitira eta erosi zuten Prakaundineko etxea". Badira urte batzuk Madalenako sarreran eta Soreasu auzorako errepidearen kantoian zegoen etxe hura bota zutela. Jatorrian bi solairukoa zela kontatu dute, eta beste bi gehitu zizkiotela prakaunditarrek. Han jaiotakoak dira Pilar eta Arantxa; Manuel, berriz, Urrestillan jaio zen, arbasoak bezala, han bizi izan zirelako zenbait urtez bere gurasoak. Prakaundineko etxean urte batzuetan taberna izan zuten familiakoek, eta lantegi bat ere bazen beheko solairuan.

Prakaunditarrena belaualdi askoan mantendu den familia ezizena da, baina gehienek bezala, galtzen joateko joera du. Julenek oraindik mantentzen badu ere, beste lehengusuen seme-alaben kasuan ez dirudi hala denik. Bosgarren belaualdikoez galdetuta, "isil samarrak dira, horixe dute akatsa", bota du Jabierrek.

DIONITARRAK

Prakaunditarren oinordeko zuzenak dira dionitarrak. Dioni Etxeberria *Prakaundi* zen Urrestillako Altunan jaiotako zortzi anai-arrebetan gazteena. Aita zirtolari amorratua eta etorri handikoa zela dio Ramon (Azpeitia, 1958) semeak, "oso txistosoa". Haren izena ezizen bilakatu zitzaizen "txikitatik" Elizkaleko 33. zenbakiko lehen solairuan jaiotako sei anai-arrebei; eta hala mantentzen dute, baita ezizena atzera izen bihurtuta ere. "Aitari Dioni esaten zioten, Dioni

zuelako izena. Gertatzen dena da, gu guztioi ere Dioni hots egiten digutela, eta inor ez garela Dioni izenez. Baina iloba zaharrena bai, haren izena Dioni da", gogoratu du Jabierrek (Azpeitia, 1965). Ramonek azaldu du aita 1974ko irailaren 18an hil zela, "eta lau egun lehenago jaio zen biloba zaharrena; eta hari Dioni jarri zioten. Aitak ez zuen jakin izan attitte egin zela. Nire anaia zaharrenaren [Joxe Luis] kapritxoa horixe izan zen, semeari Dioni deitzea. Gero, beste anaiak, orain dela gutxi hil denak [Jesus edo Jeisto], esaten zuen anaiak jarri izan ez balio, berak jarriko ziola semeari Dioni izena".

Hona ekarritakoetan ezizenik berriena da dionitarrena: bi belaualdi besterik ez ditu, Dioni zenaren seme-alabena eta bilobena. "Niri gustatu egiten zait Dioninekoa esatea", dio Jabierrek. "Taberna batean edo denda batean, enkarguren baterako izena eskatzen badidate, 'ipini iezaazu Dioni' esaten diet, Jabier *Dioni*. Nik, bai, eta harro, gainera. Izan ere, Transportes Dioni kamioian, Carboneria Dioni, Butanos Dioni... Anaiak elektrogailu denda zeukanean, hura ere Dioni... Eduki ditugun negozio eta jarduera guztiak izan dira Dioni".

Bigarren belaualdikoez ere askok mantentzen dute Dioni ezizena. Bere semeek hala esaten dietela dio, esaterako, Ramonek. Jabierrek, berriz, semeari hainbeste ez zaiola gustatu izan kontatu du. "Hasi zitzaizkion Dioni esaten eta 'atte, ni lker naiz' esaten zidan. Txikitak ez zion graziarik egiten; orain, ohitu egin da. Norari bai, Norari gustatzen zaio", dio alabaz.

ZULOILENEKOAK

Maria Luisa Arrutiren (Azpeitia, 1932) aita, Esther Arrutiren (Azpeitia, 1963) eta Miren Arruti-



Dionitarrak Elizkaleko jaiotetxea zegoen lekuan. ■ Mailo Oiarzabal

ren (Azpeitia, 1990) aitona, alegia, izan zen Elizkaleko Zuloileneko familiako azken zuloilea. Baina lanbide horren tradizioa, familiari ezizena eman diona, bi belaunaldi lehenagotik zetorren, eta Maria Luisaren amaren familiatik, hark alabari kontatutakoaren arabera: "Nire attitteren osaba bat izan omen zen gure familiako lehenengo zuloilea; nik ez nuen ezagutu. Nire attittek segitu zion, eta gero nire aitak". Maria Luisa "seguru-seguru" dago aitak behintzat 50 urte egin zituela lanbide horretan, Beloki koruko tenorrarekin eta Epelde sakristauarekin batera omendu zutelako, "Silvestre Otamendi alkate zela", beren jardueretan mende erdia betetzeagatik. "Amak esaten zuen, gure etxeko hiruren artean ehun urte egin zituztela lan horretan".

Bukatu ziren zuloileak zuloiletarrean, baina bosgarren belaunaldira iritsi da familia ezizena, Estherrenera eta Mirenenera, besteak beste. Biak bat datoz gazteen artean familia ezizenen erreferentzia galtzen ari dela esatean. "Nire belaunaldikoek badakite zuloiletarra naizela, aurrekoetakoek ere bai. Baina gazteagoek ez dute jakingo. Norbaitek galdetzen badit nongoa naizen, nire adin modukoa edo pixka bat zaharragoa bada, nik esaten dut 'Elizkalekoa, zuloiletarra'; edadetuentzat hori da erreferentziarik onena. Gazteagoa bada, 'Elizkalekoa', eta hortxe bukatzen dut", dio Estherrek. "Hori



Zuloilenekoak hilerriko seinalearen aurrean. |||Mailo Oiarzabal

da. Pertsona heldu bati azaldu behar badiot nor naizen, bai aipatzen dut Zuloilenekoa naizela. Baina neure adineko jendearekin, ez; azkenean, abizenagatik ezagutzen naute, zuloiletarra ez dute ezagutzen", gaineratu du Mirennek.

Zuloile izena xuribile edo zurubile ere bihurtu dute askok. "Guri aitak oso garbi esplikatzun zigun: 'Xurubile-eta esaten zigunabe, baina Zuloilenekoa den'. Xurubilerena izan da nahasten edo degeneratzen joan den ahazko erabilera.

Eta zenbaitek halaxe esango du, e, baina nik inoiz ez", azaldu du Estherrek.

AITZAKITARRAK

"Zerbait justifikatzeko ematen den arrazoia". Aitzakiaren definizioa bilatzen hasita, antzeko zerbait azaltzen du hiztegiak. Ezin jakin aitzakiak asmatzen artistak zirelako jarri zieten goitzen hori, baina bada aitzakitarren familia Azpeitian.

Angel (Azpeitia, 1941) eta Fatima Arakistain (Azpeitia, 1947) anai-arrebak dira familia horretako zaharrenetakoak. Angelen alaba da Begoña (Azpeitia, 1977) eta haren lehengusua Juan Jose (Azpeitia, 1962). Arakistain abizenari eutsi diote guztiek, baina Aitzaki ezizenaren jabe ere badira.

Goitzenaren nondik norakoak argitzen hasi nahi, baina ezin. "Neuk ere ba al dakit ba nondik datorren", dio Fatimak. "Bustinzuriko Errebaleko soziedade bat zen Aitzaki. Gerra denboran soziedadea desegin egin zen, eta gerra bukatu zenean, gure aita Pedro Arakistainek eta haren koinatu Juan Olaizolak zabaldu zuten".

Gerra aurreko elkarte haren izena zen Aitzaki, eta berriro zabaldu zutenean, izen bera mantendu zuen. Olaizolak han lan egiteari utzi zion gerora, eta Pedrok jarraitu zuen, zazpi seme-alaben laguntzarekin. Aitzaki ez zen ohiko elkar-



Aitzakitarrak Errebalean, Aitzakinekoa zegoen tokiaren inguruan. |||Ihintza Elustondo

OBRA ZUZENDARITZA ETA GREMIOEN KOORDINAZIOA
AURREKONTUAK ETA OBRA NEURKETAK
IREKIERA ETA JARDUERA BAIMENAK
ERAIKINEN IKUSKATZE TEKNIKA (ITE)

JON ESNAOLA
ARKITEKTO TEKNIKO
M: (+34) 647 654 506
T: (+34) 943 15 7000
E: info@jonesnaola.es
www.jonesnaola.es

te gastronomiko bat, dena den. "Janaria norberak ekartzen zuen, eta guk prestatu egiten genuen. Postrea eta bertan egindako sagardoa jartzen genuen guk", gogoratu du Angelek.

Begoñak ezagutu zuen elkarte hura, eta leku zaharra bazen ere, "bere xarma" zuela dio. Jende ezagun asko pasatu zen leku hartatik: obispoak, toreatzaileak, kirolariak... "Orduan Kirurira ez, Aitzakira ekartzen zuten jendea", azaldu du Begoñak. Juan Josek gogoan du jendea nola egoten zen zain ilaran Aitzakira sartzeko.

Arrakasta handia izan bazuen ere, leku hura ixtea erabaki zuten 1993ko irailean. "Zahartu egin ginen, aspertu ere bai, negozioarekin jarraituko zuenik ere ez atzetik, eta...", oroitu dute bi nagusienek. Etapa hura amaitu bazen ere, oroi-tzapen politikak dituzte gordeta guztiek, eta bizi-tza markatu dien elkarte haren arrastoa itsatsita daramete izenean oraindik ere. "Ni Aitzakineko txikiaren alaba naiz", eta "ni Aitzakineko Javierren semea" diote Begoñak eta Juan Josek.

KINTTELDARRAK

Aitak lehengusuak dituzte Aitor Larrañagak (Azpeitia, 1962), Javier Etxanizek (Azpeitia, 1959) eta Bixen Etxanizek (Azpeitia, 1938). Azken hori da kintteldarren sagan bizirik den zaharrena; 79 urte ditu. Hiruren birraitona zen Francisco Larrañaga; hari deitu zioten aurreneko Kinttela.

Ia 200 urte izango dira Francisco jaio zela, eta laugarren belaunaldikoak dira familiaren inguruan hitz egiteko bildu diren hirurak. Inork ez zuen birraitona ezagutu, baina gurasoek eta aitona-amonek kontatuta jakin dituzte haren nondik norakoak. Bixenek ondo daki nondik dato-



Kintteldarrak beren birraitonak egindako haitzuloaren aurrean. |||Ihintza Elustondo

rreren ezizena: "Beti adarra jotzen omen zioten gure birraitonari: 'Hi txikia eta potoloa haiz!'. Eta behin esan omen zuen: 'Nik kintal bat pisatzen diat!' [Kintal bat ehun kiloren baliokidea da]. Apustua jokatu zuten, eta bai asmatu ere! Ehun kilo pasatu egin zituen!". Hortik gelditu zitzaion ezizena: Kinttela. "Grazia handikoa omen zen gure birraitona", oroitu du Bixenek.

Tailugilea zen Francisco, eta tailer bat zeukan parrokiaren ondoan. Egun oraindik ere herrian ezagunak diren hainbat kontu egin zituen hark bere garaian: parrokiaren ondoko haitzuloa, hilerriko kapera, agintarientzat gordeta parrokiaren lehen lerroan dauden bankuak, berak zuzendu zuen Urolako trena...

Jende askok kintteldarrak Etxaniz abizenarekin lotzen baditu ere, izatez Larrañagatik dator ezizena. Franciscoren ondorengoek oinordeztan jaso dute haren goitizena, eta, egun, familia handia osatzen dute kintteldarrek; guztira,

200 bat lagun izango direla kalkulatu dute. Azkoitian ere bada Kinttela abizena duen familia bat, baina ez dute zerikusirik Azpeitiko sendiarekin. Azkoitiarrekin gutxi jakin nahi dute kintteldarrek, gainera; "azpeitiar peto-petoak" direla diote ozen. "Sansebastianak eta karnabalak eta... horiek denak sakratuak dira guretzat!", dio Javierrek.

Donostian, Frantzian, Legazpin, Zarautzen nahiz Txilen ere bizi dira kintteldarren ondorengoak. Azpeitian ez ezik, mundu zabalean ere utzi du arrastoa, beraz, familiak. Egun, bosgarren eta seigarren belaunaldiak ere badatoz atzetik, eta, diotenez, "bizi-bizirik" jarraitzen du oraindik ezizenak. "Niri inork ez dit Javier Etxaniz deitzen, ni beti izan naiz Javier Kinttela".

Ezizena ia-ia abizen bihurtua dute, beraz, kintteldarrek. Hainbeste kilorekin ez, baina birraitona zenaren morearekin jarraitzen dute ondorengoek ere.✱

KIMU BAT GARDEN

KIMU BAT 25 urte
Urrestila bidea, Azpeitia
943 15 00 85

“Tutoreekin dugun gertuko harremana gustatzen zait gehien”

Amaia Illarramendi



Amaia Illarramendi (Azkoitia, 1997) Haur Hezkuntza gradua ikasten ari da atzerriko hizkuntza ibilbidean, **Mondragon Unibertsitateko** Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean, Eskoriatzan. Aurren, ikasketa horietako hiru garren maila ari da egiten.

Zergatik aukeratu zenuen Haur Hezkuntza gradua, eta zergatik Mondragon Unibertsitatean?

Betidanik eduki izan dut hezkuntzarekiko interesa, eta ez zitzaidan graduaren aukeraketa egitea gehiegi kostatu. Haur Hezkuntzako edo Lehen Hezkuntzako gradua egin aukeratzeari, ordea, pixka bat gehiago kostatu zitzaidan. Informazioa jaso eta Haur Hezkuntza graduko ikasleei zein irakasleei galderak egin ondoren, etapa honek pertsonen bizitzak baldintzatzen dituela ohartu nintzen. Ikasketak Mondragon Unibertsitatean egitea aukeratzearen zergatia hasierako aurkezpena izan zen; izan ere, oso giro goxoa, gertutakoa

eta euskalduna sentitu nuen bertan. Horregatik erabaki nuen ikasketak han egitea.

Nola balioetsiko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Gradua egiten ari naizen heinean, lehendik nuen hezkuntzarekiko interes hori are gehiago piztea lortu dutela esango nuke. Azpimarratu nahi nuke aurkezpen hartako sentipenak ez zirela okerrak eta espero nuen esperientzia bizitzen ari naizela. Gainera, alde teorikoa lantzea, praktikoari ere garrantzia handia ematen diogunez, praktikaldirako oso baliagarriak izaten diren esperientziak bizitzeko aukera izaten dugu. Graduan zehar landutako harreman pertsonalei esker, geure burua ezagutzeko eta zailentzen jartzeko aukera izan dugu; horretara animatu gaituzte, gure hezkuntza profesional zein pertsonala garatzea ahalbidetuz.

Nolakoa da HUHEZIn jasotzen duzun ikasteko metodologia?

Ikasten ikasi behar dugula irakatsi digute, eta elkarrengadik asko ikasten dugu. Azterketa gutxi batzuk eta bakarkako lanak egi-

ten ditugun arren, batez ere, talde lanean aritzen gara. Taldeak txikiak izan ohi dira, zailentzen, jakin-minak, kezak eta jakintzak partekatzea delako helburua; izan ere, partekatze horretatik asko ikasten dugu. Gainera, gauzak geure kasa egiten uzten digutela ere aipatzekoa da; baliabideak eskaintzen dizkigute, eta horietatik abiatuta geuk sortzen ditugu lanak.

Unibertsitatetik zer da gehien gustatzen zaizuna? Eta ba al da zerbait hobetzeko?

Batez ere, gehien gustatzen zaizuna da tutoreekin izaten dudana gertuko harremana. Mintegiak egin ohi ditugu norbere zein gelakideen esperientziak partekatzeko, eta horiek gure arteko harremana estutzen laguntzen dute. Gainera, nahi izanez gero, gure jarreraren eragin dezakeen iraganeko zein oraingo egoera pertsonala azal diezaiogugu tutoreari, eta horrek, gu ulertzeko eta batzuetan laguntzeko aukera ematen die haiei. Egia esan, laguntzeko prest agertu ohi dira beti, eta harreman pertsonal hori edukitzea eta

entzungo zaituen norbait izatea, eskertzekoa izaten da. Hobetzeko diren gauzen artean esango dudana, agian, erronka pertsonala ere izan daiteke. Askotan, guri uzten digute lanak egiten edo sortzen, eta horrekin batera etortzen zait segurtasun falta; lanak egiten ari garen bitartean, batzuetan, ez dugu jakiten eskatutakoa erantzuten ari al garen. Hala ere, horrek badu bere alde positiboa ere: akatsak egiten ditugunez eta horiek hobetzeko edo aldatzeko aukera ematen digutenez, geure akatsetatik ikasteko aukera izaten dugu.

Etorkizunera begira, zeintzuk dira zure asmoak?

Oraindik ikasteko asko dudanez, kontziente naiz horretan jarraitu beharko dudanez. Hala ere, lehenbailehen lana aurkitzea gustatuko litzaidake, praktikaldian izandako esperientzietan ikusi dut-eta oso gustura ibiltzen naizela lanean. Bestalde, ikasturte hau bukatzean, egindakoaz hausnartzeko beste ikasturte bat izango dut, eta espero dut ordu-rako gauzak pixka bat argiago eduki ahal izatea.

Kontu kontalari

Badira han eta hemen ipuinak kontatzen dituzten herritarrak. Orotariko ikus-entzuleei zuzendutako askotariko istorioak sortzen dituzte. 📖👁️ Elena Margüello

Axen Escaladak (Donostia, 1964), Onintza Zeberio (Azpeitia, 1974) eta Lorea Etxeberria (Azpeitia, 1993) lanbide desberdinak badituzte ere, badaukate partekatzen duten afizio bat: ipuinak kontatzea. Azpeitiko hiru bizilagun horiek mota guztietako istorioak helarazten dizkiete adin desberdinetako pertsonei.

Escalada, aurretik ipuin kontalari ikastaro batzuk egina bazen ere, Hiromi Yoshidak Japoniako tradiziozko istorioak euskarara itzuli eta lagun batzuei horiek kontatzea eskatu zielako hasi zen ipuin kontalari lanetan. Bestelakoa da Zeberioaren kasua. Azpeitiko Ikastola Karmelo Etxegaraiko liburutegiko ardura hartu ostean, umeei bertako ipuinak kontatzen hasi zen. Etxeberria, berriz, “beti” ibili izan da umeen inguruan “asko gustatzen” zaizkiolako, eta animatzaile lanetan hasi zen Donostian. Hain zuzen ere, umeen urtebete-tzeetan magia, globoflexia eta abar egiteari ekin zion. Egun batean, baina, hurrengo egunerako ipuin kontalari bat behar zutela esan zioten, eta txotxongilo batzuk erosi eta istoriotxo bat asmatu zuen.

Afizioa ez datorkie txikitatik, ordea. Etxeberria aitortu duenez, ez du irakurtzeko ohitura handirik, eta txikitan ez zen “inoiz” joaten ipuin kontalariak entzutera. “Euskarazko liburu gutxi zegoen gure garaian”, azaldu du Zeberio bere aldetik. Karmelo Etxegarai Ikastolan duela hamar urte jarri zuten liburutegia,



Onintza Zeberio, Axen Escalada eta Lorea Etxeberria Udal Liburutegian. ||| Elena Margüello

eta, hasieran, euskarazko liburuak gutxi batzuk baziren ere, urte hauetan “izugarrizko aldea” nabaritu dutela aitortu du liburutegiko arduradunak. “Orain garrantzia gehiago ematen diote irakurtzeari. Besteak beste, liburutegi txokoak jarri dituzte ikastoletan”, gehitu du Etxeberriak.

Escaladak kontatzen dituen istorioak raku-
goak dira, Japonian orain dela 400 urtetatik
ahoz aho jaso dituzten kontakizunak. Gidoia
ikasita izaten dute kontalariek “istorioak beti
berak” direlako, eta elkarrizketetan oinarrituta-
ko istorioak direnez, “batzuetan, inprobisatu
beharra” izaten dutela azaldu du. Japonian
nola, Escalada eta bere taldekide rakugolariek
hala kontatzen dituzte istorioak: eserita eta
geldirik. Zeberioak ere ez ditu asmatzen konta-
kizunak. “Gustatzen zaizkidan liburuak hartzen
ditut. Lehenengo, semeei kontatzen dizkiet,
eta gustatzen bazaizkie, gainerako haurrei”,
azaldu du. Etxeberriaren kasua bestelakoa da.
Kontatzen dituen istorio gehienak berak as-
matutakoak dira, baina plazaratzen ditu nor-
baitek kontatu dizkion eta berak moldatu di-

tuen ipuinak ere. Batzuetan, gainera, “umee-
kin momentuan asmatzen ditut ipuinak”, gehitu
du.

Kontatzearen garrantzia

Publikoaren eta adinaren arabera, gustuak “al-
datu” egiten direla diote Etxeberriak eta Zebe-
riok: “Txikienei begietatik sartzen diren istorio-
ak gustatzen zaizkie, abestidunak edo parte-
hartzeko aukera ematen dutenak. Gaztetxoei,
berriz, emozioak edo intriga erakusten dute-
nak”. Batak zein besteak azaldu dutenez, beti
eramatzen dute mozorroren bat soinean,
umeen arreta “azkarrago” erakar-tzeko. Etxe-
berriak dioenez, kontakizunak egiten hasi ze-
nean, lehen saioetan, gidoia “beti prest” izaten
zuen badaezpada ere, baina denborak eraku-
tsi dio, haria galtzen baldin badu ere, hobe dela
inprobisatzea: “Errazena, prestatuta dudan
hori ateratzen zaidan erara kontatzea da”.

Ipuin kontalarien lana ez da izaten, ordea,
ahozko kontaketa prestatzea soilik. Zeberio is-
pilu aurrean entseguak egiten aritzen ez bada
ere, eszenifikazioa “esajeratu” egiten duela ai-

tortu du. Dena den, istorioa “barneratuta eta
menperatuta” duela sentitu behar izaten du
jendaurrean aritu baino lehen. Escaladak, be-
rriz, “kontakizuna hobeto barneratzeko” talde-
kideekin entsegu batzuk egiten dituela aipatu
du, baina ez du “aparteko lanik” egiten rakugo-
ak prestatzeko.

Hiru sortzaileen arabera, desberdina da
ipuinak norbaitek kontatzea edo norberak ira-
kurtzea. Etxeberriaren ustez, istorioa beste
norbaiten ahotik badator “entzulea errazago
sartzen da kontakizunean”. Escaladaren abu-
ruz, jendearekin harremanetan egonda eta
erreakzioak ikusita “badakizu kontatzen ari za-
rena gustatzen ari den edo ez”, eta hori “balia-
garria” da kontakizunarekin aurrera nola egin
jakiteko. Hala eta guztiz, nahiz eta kontatzen
den istorioa beti bera izan, publikoa beti izan-
go da desberdina, eta, beraz, “kontakizuna al-
datu” egiten dutela baieztatu du Etxeberriak.

Badute bizipenik

Ipuinek entretenitzeko ez ezik, balio dute
umeen heziketarako ere. Zeberioak dioenez,
gaur egun ipuinen bidez “emozioak lantzen”
dira; izan ere, “beti mezu bat bidaltzen zaio pu-
blikoari”. Etxeberriak ere, ipuinetan “askotariko
gaiak” lantzen saiatzen dela dio, umeei “nahi-
gabe xurgatzen” dituztelako. Escaladak, raku-
goen bidez, heziketa baino kultura gehiago
lantzen du. “Publikoa urrutiko istorio horiek
entzutera etortzen da, bitxiak direlako. Tokiora
joanda ere ez lukete rakugoen berri izango”,
gehitu du.

Publikoa esker onekoa izan ohi dela ere ai-
tortu dute Azpeitiko hiru ipuin kontalariek. E-
txeberriaren hitzetan, “entzundako istorioa
gustatzen bazaie, eskerrak eman gabe esker-
tzen dakite umeei. Besarkada bat edo muxu
bat ematen dizute hitzekin eskertu beharrean”.
Escaladak jakinarazi duenez, esker hitzekin
erantzuten dio publikoak. “Behin, Legorretako
Jubilatuak Elkarteak antolatutako ikuskizuna-
ren ondoren, jubilatutako guztiak gerturatu zitzaiz-
kigun eta esker hitzak baino ez genituen jaso”,
oroitu du irribarrez.

Ipuin kontalariek bizipen politak izan badi-
tuzte ere, bitxikeria batzuk badituzte gogoan.
Zeberioak irribarre txikiarekin kontatu du pape-
rean gehiegi sartu eta ume txikiak negarrez ira-
kaslearengana joatea ere egokitu izan zaiola.
Etxeberriak, berriz, saio batean ume bat azpei-
tiar peto-pettoa zela ohartu zela adierazi du.
“Mamuen istorio bat kontatzen ari nintzen, eta
ume hark mamuari *motozerrarekin* gorputzeko
zatiak moztu behar zizkiola oihukatu zuen. Se-
kulako barreak egin nituen”.✱



||| “Publikoa urrutiko istorio
horiek [rakugoak] entzutera
etortzen da, bitxiak
direlako”

AXEN ESCALADA
rakugolaria

||| “Lehenengo, semeei
kontatzen dizkiet [ipuinak],
eta gustatzen bazaizkie,
gainerako haurrei”

ONINTZA ZEBERIO
ipuin kontalaria

||| “Entzundako istorioa
gustatzen bazaie, eskerrak
eman gabe eskertzen dakite
umeei”

LOREA ETXEBERRIA
ipuin kontalaria

Mertens, Uribe eta 'Mussche'

Ondarroakoaren eleberriari musika jarriko dio egile flandriar ezagunak Soreasu antzokian, hilaren 23an. Azpeitiko emanaldia izango da Mertensen Euskal Herriko bakarra. 📧 Mailo Oiarzabal

Wim Mertensek (Neerpelt, Flandria, 1953) kontzertua emango du Azpeitian, eta hori bera bada albiste. Mundu osoan da ezaguna Mertens, piano-jotzaile eta musikagile bezala bereziki, bere musika jarduera zabalgoa bada ere. 1980tik aurrera etengabea izan da haren sormen lana eta kontzertu andana eman du, horietako asko agerleku famatuenetan. 1983ko *Struggle For Pleasure* diskoarekin hartu zuen sona eta, beste soinu-banda askoren artean, Peter Gre-enaway-ren *The Belly of an Architect* filmaren musika sortu zuen flandiarak.

Bira hasiera

Azpeitian kontzertu bira berri bati ekingo dio Mertensek, eta Soreasuko da Euskal Herrian emango

|||DATUAK|||||

|||**Zer.** Wim Mertens eta Kirmen Uriberen emanaldia: 'Mussche'. |||**Eguna.** Otsailak 23 (ostirala). |||**Ordua.** 22:00 |||**Tokia.** Soreasu antzokia. |||**Antolatzailea.** Kulturaz Kooperatiba.

duen bakarra. Gainera, berezia izango da saioa, musikariarekin batera igoko delako oholtzara Kirmen Uribe idazlea. Ondarroakoaren *Mussche* eleberria izango da emanaldiaren hari nagusia; Mertensek musika jarriko dio liburuari, eta Uribek *Musscheren* pasarteak irakurriko ditu. Horrez gain, beste pieza batzuk ere joko ditu musikariak, eta idazleak bestelako testuak ere irakurriko ditu.

|||MERTENS ZENBAKITAN|||||

75 grabazio. Mertensen diskografia oso da zabala. 2016an plazaratu zuen orain arteko azken lana.

9 kontzertu iragarri ditu momentuz 2018rako, eta Azpeitiko izango du lehendabizikoa.★



Wim Mertens. |||www.wimmertens.be

|||BESTERIK|||||

1 Karnabalak badatoz

Otsaileko bigarren asteburuarekin iritsiko dira aurten karnabalak; hilaren 11 izango da Jai Karnabala. Kaldereroak, berriz, hilaren 3an izango dira. |||**Egunak.** Otsailaren 11, 12a eta 13a (igandea, astelehena eta asteartea). |||||**Antolatzailea.** Azpeitiko Udala.

2 Irudhitzen erakusketa

Otsailaren 6a arte ikusgai da Sanagustin kulturgunean Irudhitzen erakusketa. Uztarriak 2018ko egutegia osatzeko antolatutako argazkien eta testu laburren lehiaketara aurkeztutako lan guztiak ikus daitezke bertan. Guztira, 64 argazki eta 41 testu. |||**Eguna.** Otsailaren 6a arte, egunero. |||**Tokia.** Sanagustin kulturgunea. |||**Antolatzaileak.** Uztarria Komunikazio Taldea eta Kulturaz Kooperatiba.

3 Pupu eta Lore Soreasun

'Euri tanta banintz' ikuskizuna taularatuko dute Pupu eta Lore pailazok eta lagunek Azpeitian, beren lanik berriena, alegia. Sarrerak dagoeneko salgai daude eta Kultur Bonoa erabil daiteke saio horretarako. |||**Eguna.** Otsailaren 24a (zapatua). |||**Ordua.** 17:00 |||**Tokia.** Soreasu antzokia. |||**Antolatzailea.** Kulturaz Kooperatiba.★

|||Azpeitiko ekimenez informazio gehiago: uztarria.eus/agenda

Dozena bai, baina frailearena!

Badira beste 500 urte, gero Iruñako apezpiku izango zen Cesare Borgia Vatikanon torero bezala nabarmendu zela. Zezenketa haren antolatzailea bere aita Alejandro VI aita santua izan zen. Baina zezenen kontua Vatikanon, zezen ehiza italiaraz, mendez lehenagokoa da, komemorazio ospakizunetarako batzorderik osatu ez den arren! Nahikoa dugu alderdi honetako zale sutsuen ekimen eskergekin. Ez ziren hala ere guztiak zezenekin jolasak egin edo ikusi zale. San Pio V aita santuak Salute Gregis bulda bidez debekatu zituen "kristau karitatearen kontrako" jotzen ziten ikuskizun haiek. Felipe II erregek bereganatu zuen beste aita santu bat, Gregorio XIII, eta honek beste bulda batekin, Expone Nobis, eta herria kontentatze aldera, berriro askatu zituen zezenketak. Geroztik, gaurdaino, etenik gabea gertatu da mezak eta zezenketak ospakizunetako bikote bereizezin izatea eta zezenketen inguruko eztabaida. Mendeetan zehar, Manuel Vicenten hitzak dira hauek, animaliei egin burlak, tortura eta plazako zezen hilketek exorzismo gisan erabili izan dira tribua deabrutatik husteko, baina erlijio izaera galdu dute eta azkenean guztia laidoa da, herri batek bere buruari egiten dion laidoa.

Honako hau datorkit Azpeitian sokamuturrak 500, gutxienez, urte bete omen dituela eta harrotu den haize herritarra dela eta. Zorionez herririk gehienetan jolas hori ez da adin horretara iritsi. Esanak esanda daude, eta nik egingo nukeena baino egokiago gainera, Vicenten hitzekin osatu ditut hurrengo bi paragrafo:

"Emozio zezenzaleak bizi guztia iraun dezake. Asko dira bizi osoan zaletasun horretatik askatu ezin direnak. Inork zezenketari erasotzen dionean, sakonenean zauritu dituztela sentitzen dutenak; uste baitute beren haurtzarotik garraiatu duten esperientzia hau zer bait sagratukoa dela. Kasurik hoberenean

|||||||ramon etxezarreta|||

|||Fernando VII. erregerenera iritsi gabe oraindik, unibertsitatea itxi eta tauromakia eskola zabaltzera



iristen da une bat jabetu egiten zarena haurtzaroaren aztarna hark ezkutatzeko duen miseria. Hain zoriontsu izandako jolas haien lekura itzuli eta jolas berdinarekin basatutako neska mutikoak ikustean, berehalakoan, begiak irekitzen dira eta gardentasun osoz azaltzen da giza ankerkeria.

Zezenzaletasuna injenuitatea galtzen den bezalatsu galtzen da. Bizitza elementu irrazional guztiak kentzen joaten zaizu, eta itelejintzia laiko biluzi baten menpe gelditzen zara, itsaspen magikorik gabe batere".

Dozena ziren

la-ia, baina, Fernando VII.a erregerenera iritsi gabe oraindik, unibertsitatea itxi eta tauromakia eskola zabaltzera, baina, badezpada-re, bihoa hau sansebastianetan Azpeitia zezenzalea ez denaren lekuko izan ziren pankartazale herritarren eta herritartasun gorena duten dozena pertsonaren omenaldi. Frailearen dozena izatera iristen ziren.*



|||HITZ GEZIDUNAK||||||||||||||||



Bilatzaile	▼	Madari-kazio	▼	Gotorle-kuak	▼	Ikusteko organoa	▼	Gipuzkoa-ko herria
Lanbidea		Ez kamutsak		Baizik		Hizki baten izena		
▶		▼		▼		▼		▼
Lillitegi	▶							
Galioa								
▶	▼					Kasik	▶	
						Pl., txori mota		
						▼		Bare
Jupiterren satelitea	▶		Korrikaren antolatzaile	▶			Kontso-nantea	▶
Neure			Bi bokal, herri bat				Kontso-nantea	
▼	Egoskin mota	▶	▼	Peruko hiriburua	▶		▼	
	Ez eme			Lehen bakoitia				
	▼			▼			Sufrea	▶
							Jainko egiptoarra	
			Dardara	▶			▼	
			Bokala					
	Suari dariona	▶	▼		Nasa	▶		

Egilea: Luma

* Musikari azpeitiarra

|||SUDOKUA|||||||

9				2		8		
	2	1		9				
5			7	1	4			
7	3					9		
2								5
		9					7	6
			6	3	1			4
				5		1	2	
		5		4				3



||| UZTARRIAREN LEHIAKETA: JEROGLIFIKOAK |||||

||| JEROGLIFIKOEN SOLUZIOAK BIDALTZEKO EPEA. Otsailak 21 (asteazkena) ||| NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behea (Azpeitia) edo lehiaketakuztarria@gmail.com e-postara ||| IRABAZLEARI SARIA. Kutxillo urdaitegiaren produktu sorta ||| PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da eta jergoglifikoaren irudien azpiko galderei erantzun behar zaie.

1

2SASASA

2

I
GA
EE EE
EE EE
EEEE
EEEEEE
EE EE
EE EE

||| LEHIAKETAREN ERANTZUNAK |||||

1 HARRAPATU DUGU

2 NOLA ZEGOEN PLAZA

||| BAZKIDEAREN IZEN-ABIZENAK

||| HARREMANETARAKO TELEFONO ZENBAKIA

||| SOLUZIOAK |||||

HITZ GEZIDUNAK

I	A	K	•	A	E	K	•	E	N	A	•
A	R	A	K	I	•	A	R	R	E	D	E
S	•	L	A	B	A	Z	A	I	D	I	•
A	M	I	L	•	E	T	•	N	U	T	A
L	•	K	A	E	•	A	I	•	A	S	•
•	A	D	D	N	D	R	A	R	A	S	•
A	I	•	A	I	A	R	A	G	•	B	•
I	G	E	T	A	R	D	L	•			
A	E	D	I	B	I	Z	I	B			
•	B	•	Z	•	B	•	B	•			

SUDOKUA

3	6	9	8	2	7	5	1	4	8	6	9	3
8	7	5	7	1	2	8	3	6	4	9	5	7
8	9	2	6	3	1	7	5	4				
4	5	9	1	8	2	3	7	6				
2	1	6	3	7	9	4	8	5				
7	3	8	4	6	5	9	1	2				
5	8	3	7	1	4	2	6	9				
6	2	1	8	9	3	5	4	7				
9	4	7	5	2	6	8	3	1				

AURREKO HILEKO JEROGLIFIKOAK

1

Izarra

2

Kezkatu

||| UZTARRIAREN URTARRILEKO LEHIAKETA |||||

IRABAZLEA



Iratxe Etxeberria
Uztarria Komunikazio
Taldearen bazkidea da
aldizkariko 201.
lehiaketaren irabazlea.
Kutxillourdaitegiak
emandako produktu
sorta irabazi du sari
gisa. Argazkian,
lehiaketaren irabazlea
Kutxilloren oparia
eskuetan duela.



Urdalazplikoak, hestebeteak eta gaztak

Etxeko berezitasuna:
Ezkur urdalazpliko Iberikoa

Eñaut: 656 79 14 19
Oier: 618 24 01 73
kutxillo@gmail.com
Damaso Azkue 6

|||KOMUNITATEA|||||

Milioi eta erdi! Bi milioi bai?

Iazko maiatzaren 28an zezen txiki bat ibili zen Loiola aldean paseoan; irudimen handiko mozo-erroak ikusi ahal izan ziren Astelehen Karnabalean; zoritxarreko lan istripuak izan dira gurean, baita bestelako ezbeharrak ere; Korrikaren 20. edizioa herritik igaro zen apirilaren 5eko goizaldean; Mikel Larrañagaren eta Txikonen arteko apustuak hautsak harrotu zituen; hotz eginagatik, danbor hotsek ez zuten hutsik egin san-sebastianetan; eta, urte bukaerari albiste lazgarria iritsi zen La Mongjetik.

Zerrenda amaigabea osa genezake 2017. urtearen errepasoa egiten hasita, baina aipatutako horiek izan ziren zuok, irakurleok, gehien klikatu zenituzten albisteak. Dena den, ez dira oharkabean pasatu beste dozenaka berri ere; eta atal irakurrien artean izan dira aurrean ere Eskelak eta Pourra. Honako datu hau ez da iazko urtearen errepasorako puntuagarrria, baina dagoeneko –azken lauzpabost egunetan– ehunka entzunaldi izan dituzte danborradako abestiek. Zer garen ba azpeitiarrak! Zer zareten ba....

|||Eta hor gabilta zer bilatuko, zer idatziko, zer egingo, jira eta buelta

Eta urtea bukatzean, betiko ariketa: StatCounter-i eta Google Analytics-i errepasoa. 2017ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra zenbat bisita? Zenbat orri ireki dira? Onak al dira datuak? Beste hedabideek zer nolako zifrak izan dituzte? Ba aurrean (ere) pozik nago ni; izan ere, Uztarriak 1.5 milioi bisita izan ditu 365 egunetan.

Ehunka albiste argitaratu ditu herri hedabideak webgunean, eta herritarrek horiek irakurri egin dituzte. "Irakurri egin dituzte" diot, batzuetan, estatistikei begiratu gabe, pentsatu izan dudalako halako edo bestelako albiste irakurtzen ote duen jendeak; batzuetan, pentsatu izan dut elkarrizketa bat asko irakurriko dela, eta datuei begiratuta konturatu izan naiz niretzat interesgarria zena herritarrei ez zaiela interesatzen;

eta beste batzuetan ikusi dut albiste izatera iristen ez den bitxikeria edo Azpeitian esango genukeen moduan "txorakei" batek mila-ika ikustaldi izan dituela.

Eta hor gabilta zer bilatuko, zer idatziko, zer egingo, jira eta buelta, ahaleginean, herritarrengana iristeko lanean. Eta irakurle on erantzuna ikusita, harrokeriarik gabe baina harro sentitzeko moduan garelakoan nago. Harro, egunero-egunero egiten dituzuen ekarpenengatik; harro, Uztarria zuon eta azpeitiar guztion ataria eta bozgorailua delako; harro, kexak adina lore entzuten ditugulako egunero; harro, milioi eta erdi bisita egin dituzuelako. Eskerrak, beraz, zuri, irakurle, iritzi edo berriemate.

Iaz egin zituen Uztarria.eus-ek 15 urte –2002an sortu zuen Uztarria Kultur Koordinadorak–, eta urtez urte, hazi eta hazi ari da eduki nahiz irakurle kopuruei dagokienez. Eta pozik nago, eta ezin dut ezkutatu "emoziyo" hori. Ea 2018an bi milioi bisitako langa pasatzen dugun/duzuen!*

||julene frantzesena||

|||EFEMERIDEAK|||||

1716

Utzitako haurraren bataioa.

Enparango zubian aurkitutako haurra bataiatu zuen alkateak; bera izan zen aitabitxia.

1876

Erljio botoak. Jesusen

Lagundiko erlijio botoak egin zituen Anaia Frantzisko Garatek.

1928

Joxe Mari Altuna musikaria

jaio zen. 1928ko otsailaren 10ean jaio zen azpeitiarra.

1985

Kaldereroen konpartsa. Urte

hartako otsailaren 16an ateratu zen lehen aldiz kaldereroen konpartsa herrian.

2010

Itzalaldi analogikoa iritsi zen

Azpeitira; Matxinbetara ez.

✎ **Iturria:** Azpeitiko efemerideak.

Herria historian zehar liburua.

||Egilea: Imanol Elias Odriozola.

||Argitaratzailea: Uztarria Kultur Koordinakundea.*

KIMU BAT GARDEN

KIMU BAT 25 urte
Urrestila bidea. Azpeitia
943 15 00 85

Gosaria

JON ARREGI aseguru saltzailea

Askotan esan ohi da eguneko otordurik garrantzitsuen delako, baina egunean egin beharreko beste otordu bat besterik ez da, garrantzia kendu gabe. Egia da platerean zer jarri erabakitzeak aukera bikaina dela.

Egunero gauza bera gosaltzeko ohitura izaten dugu, eta gainera, gailera, margarina, azukrez beteriko zerealak, zumoa eta kakaozko edari industrialak eta abarrez osatuta egoten da askotan. Gosari gozoeziak eta presakakoak egiteko joera dago. Batzuetan, goserik gabe esnatzeak, gosari monotonoak egiteak eta denborarik ez izateak edo gosaltzea ez gustatzeak jatordu hori ez egitera bultzatzen gaitu. Guzti horrek gosaria berriz planteatzera eramaten gaitu.

Planifikazioa izan daiteke gure aliatu onena. Fruta freskoa, zereal integralak, arrautza egosiak, aurrez konjelatutako ogi integralak edo olioak beti eskura izateak gosariak minutu gutxitan sekulako bihur ditzake. Apetitu ikaragarriak ez baduzu goizeko lehen orduan, gosaria bitan banatu eta goiz erdian biribildu. Egun bakoitza aukera desberdin bat da gosaria berezi eta desberdin egiteko. Eta errezeta berriei inoiz ausartu, araurik ez baitago osasuntsua den bitartean.

Milaka aukera ditugu. Imajinatzen espeltazko ogi xigortua, arrautza egosiarekin eta intxaur olioarekin bustita eta sagar erre batekin lagunduta? Ummmm!*



aitziber aizpuru



1. Zer arlotan aritzen zara?

Auto, bizi eta osasun aseguruekin aritzen naiz.

2. Zer aseguratzea gomendatzen duzu?

Norberak hausnartu behar du dituen arriskuez.

3. Letra txikia ez al da txikiegia?

Estalduarrik gabeko kasuetan

bezereen interesak defendatzeko gaude.

4. Iruzur egitea...

Gero eta zailagoa da, baina beti daude pikarokeriak.

5. Arrisku orokoa kendu, eta danba!

Bizitzaren arriskuak dira.

6. Jendea zintzoa da ordaintzerakoan?

Epe mugan ordaindu ezean, estaldurak indarra galtzen du.

7. Bitxikeriarik?

Baserria aseguratzen joan eta 300 urteko seaska zuten.

8. Muturreko asko jasotzea dagokizu?

Ez, estaldura egokia eskaintzea dugu helburu.*

Ainitze Agirrezabala

IRENE ALTUNA
LOIOLAKO
Loiola Bide, 26 Tel. 943 81 51 87
www.ialtunacenda.com

AZKOITIA
ERLOJU
KONPONKETAK
Arona, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

Koh Tao
OSAGARRIAK
Foni. Iribidea, 3 • Tel.: 459 488 193
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)

Alar
mertzeria
Loiolako Inazio Hiribidea, 9
Tel.: 688 81 87 78

ORDULARI
José de Arrese, 10
Tel. 943 81 52 44
20730 AZPEITIA

Luba
Aholkularitza
Finantza
Gestioiariak
Finan. administrazioa
Gestio inmobiliarioa
Tel. 943 151 224 Fax: 943 152 224
Euzkadi Kalea, 18 • 20730 AZPEITIA

KIRURI
JATETXE
Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tfnoa.: 943 81 56 08
Faxa.: 943 15 03 62

adi
ARTE ETA
DISEÑO
MODA
ELKARTEA
Marraskia eta eskulanak
(haurrak) 17:30 - 19:00
Pintura 16:00 - 17:30
(helduak) 19:00 - 20:30
Talia 18:30 - 20:00
Zelai Arrese Kalea, 2
943 81 28 08
adibizkaritza@gmail.com
Marraskia arte eskola zabalik

Etxekoen epela abaro

Lurralde garapenean ikertzailea da Miren Larrea, eta haren egunerokoak “errusiar mendia” dirudien arren, lanetik kanpo “lasaitasunaren zale sutsua” da.

 Ainitze Agirrezabala

O sasun arduradunen aureikuspenak beteta, San Sebastian bueltan jo zuen goia gripearen birusak, eta urteroko epidemia horri izkin egitea lortu gabe harra-patu du gaitzak Miren Larrea (Azpeitia, 1970) ere. Uztarriarekin elkarrizketarako hitzordua jartzerakoan, etxean zegoen erretiratuta, baina ohearen epela utzi eta patxadaz aritu da solasean gaur egun Orkestra Lehiakortasunerako Euskal Institutuko lurralde garapenaren arloan ikertzaile dena.

Paulo VI.a auzoan bizi izan zen Larrea gurasoenekin eta anaia-arrebekin, eta hiru senidee-

tan zaharrenak haurtzaroko oroitzapen “onak” dituela adierazi du. “Umetasunetik atera ninduen inolako ezbeharrik ez nuen izan; zailtasun berezirik gabe bizi izan nuen garai hura. Amak beti esan izan du eraman erraza naizela, iragazkirik gabe, guztia kontaktzen nuelako”. Eta gaur egun ere, halakoxea izaten jarraitzen duela dio. “Ingurukoek askotan esaten didate musean jokatzeko ez dudala balio, aurpegian dena irakurtzen zaidala eta”.

Egunerokoan, “izaera lasaiko” emakumea eta “lasaitasunaren zalea” da Larrea, baina lanak hala eskatuta, batera eta bestera “asko

bidaiatzea” eta jendearekin “etengabe” harremanetan egotea ditu betebeharrak. Horregatik, lanetik kanpora, “bakarrik eta isilik” bere baitan egoteko “denbora” hartzea beharrezkoak du: “Askotan, bizitza pribatua lanaren ispilua da; baina kontrako eran, pixka bat orekatzeko”. Kirolaria inoiz ez dela izan dio: “Ikastolan soinketa eman genuenetik korrika ez dut egin, unibertsitate garaian goizeko autobusa harrapatzeko metro batzuk ez bada!”. Baina “bertigo arazoak” tarteko, Nordic Walking ikastaroa egin zuen, eta “kirolari sutsua” den Norvegiako lagun batek anima-

tuta mendi bueltatxoak egiten hasi zen: “Hasieran, uste nuen bertsoak aterako zizkidatela makilak hartuta ikusten nindutenean, baina denborarekin asko zabaldu den modalitatea da”. Astean hiruzpalau aldiz, Urretatik joan-etorria egiten duela dio, eta buelta egin izanaren lekuko, Urreta baserria baino beheraxeago selfia ateratzen du, ondoren Norvegiako lagunari bidaltzeko. “Telefono mugikorra Urretako argazkiz beteta dut, baina buelta maitea dut. Ordubete inguruko ibilaldi horrek eguneko zurrumbiloa antolatzeke balio dit, eta, bueltan, e-posta asko bidaltzen ditut. Lanetan esaten diet Urretako joan-etorria lan orduetan sartu beharko nukeela, handik bueltan deskonektatzen baitut zinez”.

Joan den uztaillean, berriz, Larrearen senarrak Pirinioak zeharkatu zituen, Cap de Creusetik (Herrialde Katalanak) Hondarribiraino, eta azken astean, Larrea batu zitzaion abenturara: “Nafarroatik Hondarribira joan nintzen; egunean, batez beste, bost-sei ordu eta 20-30 kilometro egin genituen oinez. Niretzat proba bat izan zen, uste bainuen egunen batean autobusa hartu beharrean izango nintzela, baina sasoi onean burutu nuen ibilaldia”.

Argentinara eta Norvegiara, sarri

Gogoan dituen beste oroitzapenak ltsasin ibili zen garaioak dira: “Neska kozkorretan hasi eta 23 urtera arte aritu nintzen, belaunetako arazoak izan arte. Lagunarte polita osatu nuen, eta dantza taldearekin Ingalaterrara, Belgikara, Holandara, Hungariara, Poloniara... bidaiatzeko aukera izan genuen”. Urte batzuetara, guraso izatea erabaki zuten, “ametsetako bidaia” egitea pentsatu zuten. “Seme-alabak izaterako, bizitzan gehiago inoiz joango ez ginen norabait joatea erabaki genuen. Nik baleak ikusteko ilusioa nuen, eta Norvegiara joan ginen. Eta zer den bizitza, geroztik handik irten ere egin gabe nabil!”. Izan ere, lanagatik Norvegiako edo Argentinako unibertsitateetara eskolak ematera joatea sarri tokatzen zaio, “urtean bizpahiru aldiz bai”, baina jarduera profesionala familiarekin uztartzeko “ahalegina” egiten duela adierazi du; are gehiago ama izan



1. Miren Larrea –argazkian eskubikoa– Argentinan. **2.** Urretara egiten duen buelta horietako batean ateratako selfia. **3.** Familiarekin. **4.** Ostiraletako kuadrilla mimoz moztortuta, duela bi urteko Karnabaletan.



zenetik. “17, 15 eta 12 urteko alabak ditut, eta txikiak zirela asko mugatu nituen bidaiak. Gainera, jabetu nintzen, esaterako, Argentinara joan eta aireportua, unibertsitatea eta hotela baino ez nituela ezagutzen, eta lanean proposatu nuen aurrerantzean bidaia haiek asteburura-edo luzatu eta hango bazterrak ezagutzeko aprobetxatzea. Norvegiara familia osoa joan ginen, baina Argentinara oraindik ez gara inoiz etxeko bostok joan”.

Kirolaria ez, baina parrandazalea ere inoiz ez dela izan dio: “Logura sartzen zait eta aurreneko txandan erretiratzan naiz”. Baina lagunartean egotea “asko gustatzen” zaiola gaineratu du, eta “hutsik egin gabe” janzen dira Elegante Egunean eta Astelehen Karnabalean. “Aurten, ordea, karnabalak galduko ditut, lan konituak tarteko Norvegiara noa eta”.

Irakurle porrokatua ere bada Larrea, eta hark dio “ohe-mahaian beti libururen bat” duen horietakoa dela: “Askok gustatzen zait iluntzero ordu erdi batez irakurtzea, baina liburuak harrapatuta banauka, ordu eta erdi igoal luzatzen zait; eta hurrengo goizean, zera, lanak izaten ditut esnatzeko. Zerbait arina leitzea gustatzen zait, gehiegi pentsaraziko ez didan zerbait. Jendearen egunerokoa kontat-

zen duten nobelak gustatzen zaizkit asko, denbora tarte horretan beste norbaiten munduan sartzeko. Argentinan badut lagun bat izugarri irakurtzen duena eta hari eskatzen diot zer leitu aholkatzeko. Bolada luze batean, berriz, autore nordikoak irakurtzeko joera izan nuen. Une honetan, Dolores Redondoren *Trilogia de Baztan* ari naiz irakurtzen”.

Larreak bizitzan, familia du gauza guztien gainetik “balore preziatuena”. Ikertzaille azpeitiarraren esanetan, lanean “ahalegin handia” egin zuten nazioarteko taldea sortzeko, eta Australiako, Mexikoko, Argentinako eta Ingalaterrako lankideak ditu. “Duela gutxi, lankide bat bere jaioterrian, Mexikon, izan da adineko gurasoak bisitatzerako joanda, eta aitak hala esan omen zion agurtzerakoan: ‘Elkar berriro oso azkar ikusiko dugula espero dut’. Hitz horietan aitaren bizitzeko presa somatu zuen lankideak. Halakoetan jabetzen zara zer zorte dugun familiarengandik gertu bizita. Gure gurasoek, esaterako, zapaturu senide guztiak biltzeko ohitura jarri zuten etxean, eta familian otordu bat egin eta tertulian egote horrek ez du preziorik. Halako gauza sinpleei gero eta balio handiagoa ematen diet”.*


Euskar! Herria, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 16 16 40
Larrialdia: 943 16 16 40
Ekain
ALBAILARI KLINIKA


ostadar optika
OPTIKAS - OPTOMETRIAS
Jose de Arce, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA
Ibai Odo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA


Dutur autoak bertan darama indibidualak
AIZPURU AUTOAK
INDIBIDUALIZADORE
Tel: 943 81 23 59
Fax: 943 81 22 81
aizpuru@aizpuru.net
www.aizpuru.net
Arribas 17, 20730 AZPEITIA

TELEFONO ZENBAKIAK

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Berritzen	026069
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	15 05 16
Gaztelekua / GIB	15 71 61
Lanbide	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
KIUB	15 72 01
Igerilekua	81 41 21
Emakumeen Txokoa	15 70 55
Ertzaintza-Azkoitia	083780
Baigera I	81 51 71
Baigera II	81 23 89
Epaitegia	025191
Ekoetxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulatorioa	025400
Anbulator. larrialdiak	025401
Eguneko zentroa	15 74 96
Asepeyo	814400
Gurutze Gorria	85 32 97
DYA-Donostia	46 46 22

KOMUNIKABIDEAK

Uztarria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	890017
Azpeitian Zer?	080688
Erlo Telebista (Azpeitia)	81 53 35
Berria	943 30 40 30
Gara	943 31 69 99
Noticias (berriemailea)	687 60 50 06
DV (berriemailea)	610 81 29 12
Argia	943 37 15 45
Arrate Irratia	943 12 01 73
Euskadi Irratia	943 01 23 00
ETB	943 01 17 05

ALDERDI POLITIKOAK

Bildu	15 72 00
-------	----------

FARMAZIAK (OTSAILA)

1-8-12-17-18-23
Arrieta (Azpeitia).
943811274

6-16-22-27
Alberdi (Azpeitia).
943815974

LARRIALDIAK

112

ODOL-EMAILEAK

Otsailaren 28an izango
dute hitzordua, 17:00etatik
21:00etara, anbulatorioan.

EAJ	81 55 70
Sortu	15 72 00
EA	81 00 11
Aralar	647 42 59 95
SINDIKATUAK	
ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Sanagustin	10 52 20
Kultur Mahaia	674 16 56 84
Euskara Patronatua	81 45 18
Natuleuskara taldea	661 10 44 46
Udal Euskaltegia	81 19 47
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	816508
Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

IKASTETXEAK

Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	816380
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28
Uztaro	81 31 90

BESTERIK

Xoxoteko aterpea	58 10 07
Eregi	943 08 06 88

ORDUTEGIAK

UDALETXEA || Asteguna: 08:30-14:00 || Larunbata: 09:00-12:30 **UDALTZAINGOA** || Egun osoz irekita egoten da **ANBULATORIOA** || Egun osoz irekita egoten da **IGERILEKUA** || Astelehena: 14:00-21:00 || Beste egunak: 07:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 || Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 || Kanpokoak: ekaina arte itxita **KIROLDEGIA** || Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 **LIBURUTEGIA** || Astegunak: 09:00-13:00, 15:30-20:00 || Larunbata: 09:00-13:00 || Ekaineko azken astean, uztailean, abuztuan: 08:30-14:00. Abuztuko lehen hamabostaldian itxita. **GAZTELEKUA** || Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 || Larunbata: 16:00-20:30

ERABILGARRI



IRUDHITZEN.

Irudhitzen argazkilaritza eta literatura
lehiaketako Uztarriaren egutegia bazkide
direnek etxean jaso dute, doan. 5 euroren
truke, berriz, Sanagustinen eta
Uztarriaren erredakzioan eros daiteke.

3-4-9-15-21-28
Beristain (Azpeitia).
943811949

GAUEZ, URTE OSOAN
Alberdi (Azpeitia).
943815974

GARRAIOA

ALDALUR	943 85 25 87
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

|| autobusen ordutegi osoa:
www.uztarria.eus/azpeitia/
autobusak

KARIN NATALIA KUPCHIK

Buenos Aires, Argentina

“faltan sumatzen dudan guztia neuk ekarri dut hona”

15-16 urte daramatza Azpeitian bizitzen argentinarrak. Sorterriak markatu dion izaerari uko egin gabe, bere lekua egin du hemen. “Zoriontsu” da.  Ihintza Elustondo

Zergatik utzi zenuen Argentinan?

13 urte nituela hil zen aita, eta 21ekin galdu nuen ama. Alaba bakarra naiz, eta aitona-amonarik ere ez dut. Ni naiz familian bizirik dirauen bakarra. Euroa sartu zenean, Argentinan egoera konplikatu egin zen, eta alde egitea erabaki nuen. 25-26 urte izango nituen orduan. Sevillan [Espainia] eman nituen bost urte, eta gero Azpeitira etorri nintzen.

Gustatzen al zaizu Azpeitia?

Bai, bere xarma du. Bi aukera daude: zu egokitzen zara herrira edo herria moldatzen da zugana. Nire kasuan, herria egokitu da nigan; aitortzen dut errebelde samarra naizela.

Hirian bizitzeak askatasun gehiago ematen du?

Bai, faltan sumatzen dut hiriko kaosa. Uste dut horregatik sartzen dudala muturra hainbeste gauzatan. Bakoitza den lekukoa da, eta nabaritu egiten da hori.

Euskaldunok izaera itxi samarra omen dugu...

Oso ezberdinak gara argentinarrak eta euskaldunak. Han pasio handia jartzen diegu

gauzei, eta, hemen, hori falta zaizue. Komunikatzeko modua ere ezberdina da: han bat-batekotasun handia dugu, eta, hemen, arazoa da ez duzuela hitz egiten. Baina zoriontsu naiz, bestela ez nintzateke hemen biziko. **Asko kostatu al zitzaizun hona egokitzea?**

Hemen bizitzea ez zait erraza egin, baina denborarekin, nire lekua egin dut. Ezin duzu denekin ondo moldatu, baina nire buruarekin konforme nago, beti naizen bezalakoa izan naizelako. Ni lehengo bera naiz, faltan sumatzen dudan guztia neuk ekarri dut hona.

Inoiz itzuli al zara Argentinara?

Hona etorri eta sei hilabetera itzuli nintzen, paper kontuengatik, baina gehiago ez naiz joan. Han ez zait ezer galdu. Ez daukat senitartekorik zain, eta hori gogorra da. Momentu txarretan beste aldeko telefonoak aurrera egiten laguntzen du, eta nik hori ez daukat.

Hemen dago zure etxea?

Bai. Bakoitza den lekukoa izanda ere, nahi duen lekuan egiten du etxea. Familia txiki bat dut hemen. Ez daukazu inorekin odola partekatatu beharrik familia osatzeko.*



1. Kupchik Amaia tabernan. 2. Aitarekin eta amarekin duen argazki bakarrenetakoa. 3. Argentinan, unibertsitate garaian.



Xanga, Mihuri

Asmaezinak dira jainkoaren bideak, eta ez dakit, txuxen, nola ekin genion berriketari. Tranparik gabe lotu ginen hizketan, eta 50 urte bete berria baitzen Kar mele, adina ekarri nuen hizpidera. “Urte asko direla esaten du”. Laster erantzun zidan Letiziak. “Bost inporta urteak! Gure aitaitak esaten zuena esango dizut: ‘Adina zenbaki hutsa da’”. Gustatu zait esateko postura, esaeraren barrunbeetan gordetzen den ikuskera interpretatzeko nekerik hartu ez badut ere. Leher eginda nengoen, buruari eragiteko ezgauza. Esateko postura hori, hala ere: “Adina zenbaki hutsa da”. Asko baino gehiago zekiena izan behar zuen Letiziaren aitaitak, inola ere. Aitaita Xanga, Japonian sortua, Nagasaki ondoan, Bigarren Mundu Gerran Brasilera jo zuena, Sao Paolora, Letiziaren Mihuri amamarekin batera. Ez zen debaldeko helmuga Sao Paolo, hantxe osatu baitzen, Libertade auzoan, sorterritik kanpoko japoniar koloniarik handiena. Hantxe Xanga eta Mihuri, bertan osatu zuten familia, Letiziaren ama, kasurako.

Orain, Letiziak berak berritu dizkit aitaita-amamen gorabeherak, “adina zenbaki hutsa da”, hasi denean. “Xangak 98 urte harrapatu zituen, eta loreak zaintzea izan zuen bizia. Goizean goizago, bostetan jaiki eta eguerdiko hamabiak arte haixei ematen zien arreta dena, opa zien bere denbora eta lana. Eta alferrik joango zitzaion inor ezer esatera hamabiak ttanko baino lehen, ez zion jaramonik egingo! Aitaitak bere loreak zituen lehenengo! Libertade-n guztiz ezaguna zen aitaita Xanga, inork ez bezala zaintzen baitzituen lili, orkidea, jazinto, jazmin, krabelin zuri, mimosa, arrosa eta diren eta ez diren lorerik harrorenak nahiz itxura sotilenekoak, eite zatarreko eta beldurgarrienak zein petalorik txiki bitxiak ematen dituztenak ere! Loreen erresuman bizi zen aitaita, Mihuri amamaren ondoan”. Letiziaren aitaita-amamen istorioa gogoa nik, batetik, “adina zenbaki hutsa da” mai-



|||||||miel a. elustondo||||

|||Gogoan josita geratu zaizkit Letiziaren hitzak, Letiziarenak bezainbat beraren aitarenak

luka nire burutzar gogorrean, berriz, bestetik.

Letiziaren hitzak

“Beste esaera bat ere bazuen gure aitaitak, nik neureztat betiko gorde dudana: ‘Ez zaitez fidatu begietara begiratzen ez dizun jendeaz’. Hori ere esaten zuen aitaita Xangak”. Gogoan josita geratu zaizkit Letiziaren hitzak, Letiziarenak bezainbat beraren aitaitarenak, Japoniako Nagasaki ondoan orain ehun urte baino gehiago sortutako harenak, eta harenak baino lehen ehun urte lehenago sortutako beste batenak, irribarre eder batean bilduta begi-belarrietara ailegatu zaizkidanak. Iraungitze datarik gabeko oparia Letiziak egun hartan egin zidana Libertade auzoko aitaitaren lorategira eraman ninduenean, Xanga eta Mihuri xaharren altzora, bakean. “Adina zenbaki hutsa da”. Eta bizi.✱





IKASTOLA EREDUA
HEZKUNTZA
ERALDATZEN



ikastolenelkartea

AURREMATRIKULA
urtarrilaren 29tik otsailaren 9ra

Loiolako hiribidea 26 • 20730 Azpeitia

Tel.: 943 15 12 46

ikasberri@azpeitikoikastola.eus

www.azpeitikoikastola.eus

azpeitiko
ikastola

ikasberri koop.e.





TEKNOLOGIA BERRIAK ODONTOLOGIAN:

3D ESKANERRAREKIN EGINDAKO DIAGNOSTIKO DIGITALAK

**IRRIBARRE
HANDIENAK
ZAITZEN
DITUGU**

HORTZ INPLANTE ETA
PROTESIETAN ADITUAK
GARA.

*Erroztasunak
ordainketan.